

GUaiXE.net



Egoi Martinez
txirrindularia
Mundialera



Kirola >> 12

Olatzagutian **kulturastea** hasteko **umore emanaldia** izanen da. **Antzerkia, argazkilaritza, dokumentala, ilustratzailea...**



Kultura >> 15



Hondakinen %76,3 birziklatzera iritsiak

>>> 3

Osasunbideari UEMaren eskakizun zehatzak

>>> 9



Irurtzungo azokak, primerako erantzuna

>>> 6



Uharten Km Bertikala eta Ergoienan Bira

>>> 11

Bertso eskolan izena ematea zabalik dago

>>> 15



CPVk mangesio-oxidoa eta dolomia sinterizatua produzituko ditu ere

>>> 7



Oskiako errestaurazioa, aurkezpena

>>> 7

Konzezio ermitaren mustutzea

>>> 6

su bete

y avanza con el euskera euskararekin aurrera

Orain da unea! diru-laguntzei buruz galdetu eta ikasi euskara!

Subvención Mank diru-laguntza: matrikularen % 50

Info +:
Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan (948 464 840)
Itsasi euskaltegian (948 468 258)

Mank
Nafarroako udaletako Euskara Zerbitzuak

Leguntzailak
aek TOP-PRO ika ZUBIARTE

www.modelo-e.com • www.e-eredua.com

Euskara praktikoa

SAKANAKO AEK

ITSASI EUSKALTEGIA

Gartzia Ximenez 46, 1.
ALTSASU
948 468 258
sakana@aek.org

- Maila eta ordutegi guztiak
Todos los niveles y horarios
- Guraso taldeak ikastetxeetan
Grupos de padres y madres en los colegios
- Matrikula irailaren 20a arte
Matrícula hasta el 20 de septiembre
- Zure herrian bertan ikasteko aukera
Oportunidad de aprender en tu pueblo
- Autoikaskuntza / Autoaprendizaje

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Jon
ZORIONAK JON, 5 urte potolo bete dituzu, asko jan bola egiteko! Maite zaitugu.



Obats
Zorionak pottoka! Igandean zazpi urte beteko dituzu, primeran pasa zure lagun eta familiakin. Marrubizko muxuak etxekoan partez.



Ione Li
ZORIONAK potxola!!



Nagore Alegria Lanz
Zorionak potxola!!! Azkenik iritsi da zure eguna. 4 urte bete dituzu, zeinen haundia!!! Muxu haundi bat aita-txo, amatxo eta Laiaren partez. Muaaaaaa!



Jose Calvo Mendez
ZORIONAK zure 85. urtebetetzean!!! Muxu handi bat etxekoan partez.



Saioa Erdozia Alberdi
ZORIONAK Nafarroako pala txapelduna, jator eta polit horri!! Segi horrela baina aldatuz gero ere, beti maiteko zaitugu!! Amakuxen partez.




Gustavo ZORIONAK, Gustavo. Ikasle fina zara, horrela jarraitzen baduzu, laster euskalduna izango zara.



Esther ZORIONAK, Esther. Iaz goi mailan goizean eta aurten autoikas-kuntza. Laster EGAduna.



Ainhoa ZORIONAK, Ainhoa. Aurten ere euskara ikastera. Irurtzundar euskaldunek eskertuko dizute.



Luis ZORIONAK, Luis. Lakuntzarrek ere euskara ikasi nahi dute.



Rober ZORIONAK, Rober. Aurten ere euskara ikasten jarraituko duzu jo ta ke, egun bat ere huts egin gabe.



Jule Lekuona Senar ONGI ETORRI munda, polite!!! Araiatik eta Lizarragatik muxu asko!!!

irailak

20-26

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Pepin Tre. El cadaver inocente. Irailaren 20an, ostiralean, 22:30etan Olatzagutiko kultur etxean.

Guaka. Irailaren 20an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

Etxarri Aranazko abesbatza + Etorrizuna dantza eskola. Irailaren 21ean, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Txep. Irailaren 21ean, larunbatean, 23:59an Egiarretan.

Antzerkia

La perfumaria. Irailaren 21ean, larunbatean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Mariaje Producciones.**

Cotillas. Irailaren 21ean, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Gorka Aginagalde eta Iñigo Salinero.**

Jon beldurgabea. Irailaren 22an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **5 urtetik gora.**

Dokumentalak

Pura vida. Irailaren 26an, ostegunean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Mendi irteera

Erga-Larunbe. Irailaren 22an, igandean. **Irurtzungo Iratxoko mendi taldea.**

Ziordia-Legunbe-Lezea-Alba. Irailaren 22an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Txirrindula irteerak

San Adriango tunela. Irailaren 22an, domekan, 9:00etan Altsasuko Burunda txirrindulari taldearen mendi bizikletako egoitzatik. 43 km.

Hitzaldiak

Maputxe herriaren gatazka.

Irailaren 20an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxean. **Altsasuko Gazte Asanblada.**

Al Himalaya en bicicleta. Irailaren 24an, asteartean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Hizlariak: Aurora Seguro eta Ruben Segura.**

Myrian Cameros marrazkigile eta ilustratzailea. Irailaren 25ean, asteazkenean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. Egilearen obra ezagutzeko aukera.

Osikiako harrobiaren errestituzio planaren aurkezpena. Irailaren 26an, ostegunean, 18:30etan, Izurdiagako kontzejtu etxean.

Ataque del PP a la ley del aborto. Irailaren 26an, ostegunean, 20:00etan Altsasuko Gure Etxean. **Hizlariak: Oihana Perez eta Helena Lopez, Nafarroan abortatzeko eskubidearen aldeko batzarraren kideak.**

Argazkilaritza

Argazki proiektzioa. Irailaren 23an, astelehenean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Sergio Barrenetxea.**

Tailerrak

Ekintzaile baten esperientzia bizitzeko prest? Irailaren 20an, ostiralean, 9:00etatik 12:00etara Altsasuko enplegu bulegoan. **Langabetuendako.**

Bestelakoak

Konzezio ermitaren lanen mustutze meza. Irailaren 21ean, larunbatean, 12:00etan Etxarri Aranazko Konzezio ermitan.

Deialdiak

Hipotekek kaltetutakoan Plataforma. Irailaren 20an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1.

FESTAK Egiarreta:

>> Irailak 20, ostirala
15:00etan Etxafuegoa eta brindisa.
19:30etan Erronda Modestorekin etxe etxe jan eta edaten.
21:30etan Herri afaria.
01:00etan Dantzaldia Modestorekin.

>> Irailak 21, larunbata
11:30etan Urmentzako jokuak, puzgarriak eta buruhandiak.
12:30etan Mus txapelketa.
17:30etan Puzgarriak eta buruhandiak.
18:30etan Orritz dantza taldearen emanaldia.
19:00etan Dantzaldia Modestorekin eta txokolate jatea.
22:00etan Gazte afaria.
23:59etan Txep taldearen kontzertua.
01:00etan Dantzaldia Modestorekin egunsenti arte.

>> Irailak 22, igandea
11:00etan Meza.
12:00etan Otamena eta herriko helduei omenaldia.
12:30etan Mus txapelketaren finala.
12:30etan Puzgarriak eta buruhandiak.
18:00etan Gorriti eta bere abereak.
19:00etan Dantzaldia Modestorekin.
19:30etan Tortilla eta txistorra dastaketa.
21:30etan Hau pena nik.

gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 20an, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 22an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Irailaren 23an, astelehenean, 15:30etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

107.3 FM
beleixe online
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepassoa: albisteak, kirolak,
Anabel Arraiza Irrien lagunez, Irurtzungo azoka...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

>> **Beherako joerarekin segitzen du langabeziak**

Otsailean 2.021 langabetuen errekor tristea lortu ondoren, martxoan beheranzko joera hartu zuen eta sei hilabetetan 222 langabe gutxiago daude ibarrean, 1.790. Nafarroako langabeziaren %3,53 ibarrekoa da, herrialdeko populazioan %3,22 garenean.

Lan bila dabiltzan gehienak, 918 emakumezkoak dira (%51,28). Gainontzeko 872ak gizonezkoak dira (%48,72). Adinari dagokionez, lan bila ari diren gehienek 25 eta 44 urte artean dituzte: 855 (%47,77). 45 urtetik gorako 745 langabetu sakandar daude (%41,62). Enplegu bulegoan izena emana duten 25 urte baino gutxiagoko 190 sakandar daude (%10,61).

Sektoreei erreparatuta, zerbitzutan lan egiten lukete langabetuen %52,46 (939). Langabeen %31,79 (569) industriari arituko litzateke. Eraikuntzan lan egiteko prest dago %8,1a (145). Lehen sektoreak, berriz, lan eskaeren %1,68 jaso du (30). Azkenik, aurretik lanik egin ez eta lan bila dabiltzanak %5,98 dira (107).

Langabezia udalerrriko. Agorriko	
Udalerrria	Guztira
Altsasu	874
Arakil	68
Arbizu	83
Arruazu	4
Bakaiku	17
Ergoiena	14
Etxarri Aranatz	179
Irañeta	10
Irurtzun	197
Iturmendi	17
Lakuntza	92
Olatzagutia	107
Uhartea Arakil	61
Urdiain	39
Ziordia	28
Guztira	1.790

SAKANA

Atez ateko zortzi herrietan gaikako bilketa %76,3ra igo da

Orain dela bi hilabete %25ekoa zen. Sakanaren batz besteko datua ere igo da, %42,44an geldituz

Sakanako Mankomunitateak zoriondu egin ditu Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Olatzagutiko herriarrak hondakinak biltzeko sistema berria "ongi hartzeaz gainera, laguntza ederra ere eman dutelako hura ezartzeko". Mankeko buru Aitor Karasatorre Muguruzak azaldu duenez, "sistema berria jarrita, pertsona askok konpromiso handiago hartu behar izan dute ohitura aldatzeko eta jatorrizko hondakinak bereizteko, gai organikoak bereiziki. Hala ere, erantzun bikaina izan da".

Emaitzak ikusita Mank-en "harro sentitzen" dira, "gainerako mankomunitateek edo udalek ez baitute emaitza hoberik. Gure ustez, egundaino merezi izan du auzokideen ahalegina, saiakera ekonomikoa eta izandako zailtasun oro gainditzea, gutxi batzuek boikota ere egin dute". Manketik sakandarrak emaitza hobekak lortzera animatu gaituzte, "batere hondakinik helburua hantxe baitugu".

Konposta

Hondakin bilketa sistema berriko ardatzetako bat konposta da, Mank-ek horrela hondakin organikoaren biltzetan lan gutxiago egin behar duelako eta haren tratamen-



Hondakinaren pertzak jasoak, zintzilik, Uhartea Arakilen.

Konposta egiten duen familia kopurua

Herria	Auto-konposta	Auzo-konposta	Guztira
Arakil	332	178	510
Irurtzun	15	0	15
Irañeta	72	28	100
Uhartea Arakil	107	148	255
Arruazu	30	34	64
Lakuntza	192	212	404
Arbizu	165	156	321
Ergoiena	82	175	257
Etxarri Aranatz	236	673	909
Bakaiku	105	31	136
Iturmendi	72	90	162
Urdiain	109	101	210
Altsasu	74	0	74
Olatzagutia	128	464	592
Ziordia	29	187	216
Guztira	1.659	2.477	4.225

duan aurreztu egiten duelako. Sakanan 4.225 familia ari dira gaur egun konposta egiten. Gari eta agorriko datuek erakutsi dute zortzi herri horietan "oso maila ona dute, bertan sortzen diren ia gai organiko guztiak bildu edo tratatzen ari direlako".

Karasatorrek gaineratu duenez, "Altsasuk eta Irurtzunen oso datu baxuak lortu dituzte, hutsa-

lak ia-ia, gai organikoaren gaikako bilketa edo konpostajea oso gutxi ezarri baita". Horregatik, bi herri horietan, eta udalekin batera, Mank-ek hurrengo hilabeteetan kanpaina bat egingen duela aurreratu du Karasatorrek, "etxeko eta auzoko konpostajeak zabaltzeko, gai horiek behar bezala bilduta eta tratatuta hobekuntza nabarmena egon dadin".

Abuztuan, biztanleko sortutako hondakin kiloak

Atez atekoaren herrietan 6,45 kg/biztanleko; Irurtzunen, 20,81; Altsasun 21,93 eta eredu mistoko herrietan 33,97.

PPk geldiarazte eskaera

Popularren Sakanako eskualde batzordeak Mank-i exijitu dio "berehala geldi dezala atez ateko hondakin bilketa sistema berria, zikinkeria eta herritarren kezu eta protesta ugari besterik ez baititu sortzen". PPTik azaldu duteenez, "kaltetutako herrietako zenbait herritarrek PPri eskatu digute sistema honen arazoak salatzeko". Hondakinak lurtean, arratoiak eta katuak haien inguruan, eltxoen ugaritzea edo usain txarra sortzen direla salatu dute popularrek

Bazkide zozketa

IRAILEKO SARIAK:
 1- LOTE BAT LACTOVOGURTAK + 2 SARRERA EKAINBERRIKO KOBAZULOETARA + XOTA NAVARRA IKUSTEKO SARRERAK
 2- KATXIPORRETA TXANDAL BAT + AQUARIUMERAKO 2 SARRERA + XOTA
 NAVARRA IKUSTEKO SARRERAK
 3- KATXIPORRETA TXANDAL BAT + AQUARIUMERAKO SARRERA BAT + XOTA NAVARRA IKUSTEKO SARRERAK
 4- LIBURU LOTE BAT + AQUARIUMERAKO SARRERA BAT + XOTA NAVARRA IKUSTEKO SARRERAK

Non erabili

Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrrenda osoa ikusgai

- MARI JOSE ILEPAINDEGIA** **ARBIZU**
Manikura 18€.
- EROSKI BIDAIK** **ALTSASU**
%5eko beherapena, hiri hotelako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria
- MARIXELE** **ETXARRI**
% 5eko deskontua irakurke-

- tako liburuetan.
- LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA** **URDIAIN**
50€ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.
- LARKA** **ALTSASU**
60 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

- LORENA FRUTA DENDA** **IRURTZUN**
%10eko deskontua fruta tropikaletan.
- LASTAI GASOLINDEGIA** **ALTSASU**
0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.
- FORD GABIRONDO** **ALTSASU**
Olioaldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulabetan.



Aingeru Mikeo

astekoa

Erredakzioaren oharra >>

Aurreko astean Ekaiko hilerria eta ermita berritzeko lanen berri eman genuen. Aipatu gabe utzi genuen Arakilgo Udalak lan horietarako 22.000 euroko diru-laguntza eman duela.

Krimena

Londoneko hiltzaile Jack ospearen modura, altzairuzko aiztoa sartu diote erraietan sakon eta hotz, babesak urratuz, zauriak eraginez, eta, hondarrera, odolustuz. Hala ere, ez da krimen honengatik ikerketarik egiten, ez da hiltzailerik harrapatuko, ez du inork heriotz zigorrak jasoko, baina, Inasa,

hilik dago, eta ondorio latzenak, langileek eta beren familiek pairatuko dituzte.

Jabe zen enpresak, Baikap-ek, hogeita hamar milioiko galera izan omen zuen azkeneko hamar urteotan. Baina, fabrikaren azken hatsa makinaria atera zutenean izan zen, 3,1 milioi eurotan saldu eta gero. Hala ere, badiru-

di zenbaki orokorrak ikusita, tamaina horretako enpresa izateko, aktibo eta pasiboen balioak parekatuta zituela.

Duela egun batzuk lainformacion.com aldizkari digitalean irakurrita, Yolanda Barcinak protokolo bana sinatu zuen Funesko eta Noaingo enpresa birekin, zeinetan 49 milioiko inbertsioa

eginen zen 24 lanpostu sortzeko, biak ere nekazal-elikaduran estrategikoak izanen direnak. Bi milioi euroko inbertsioa lanpostu bakoitzeko, eta maiz ikusi izan ditut tankera horretako inbertsioak lanpostuak sortzeko. Inasan, aldiz, 165 lanpostu suntsitu dira. Benetan latza! Ez zen jarduera estrategikoa? Zigorra merezi

zuten langileek? Arduragabeak ziren jabeak? Arinkeriaz jokatu zuten Diputazioak?

Ikasi duzerbait norbaitek? Bien bitartean, arrisku handiko kapitalaren jabeek berdin segituko dute luxuzko saloietan baloreburtsan jolasten, kapitalaren bingoa.

aingerumi@gmail.com

hara zer dien

Sexu harremanak eta adina; lege proposamenaren kontura

Udako oporrak bukatu eta berriro mundua martxan jartzen denaren sentsazioa izaten dut iraila hasieran. Telefono deiak, ikastetxeak, kontsultak... Udan deskantsoan edo geldirik egon diren gaiak, zailtasunak, gatazkak, orain lehenbailehen irtenbidea bila ate-joka datoz. Gaurkoan, azkeneko aste honetan, batzuen ahoetan eta niri zuzenean egokitu zaidan gai batetaz idatziko dut.

Badirudi Espainiako Gobernuak adin txikikoekin baimendutako sexu harremanen adina 13 urtetatik 16 urtera arte igoko

duela. Gaiak, alderdi kontserbadore eta progresisten artean ideiak kontrajarriak sortzen ditu, eta askotan zaila izaten da, norbere iritzia kontutan hartu gabe irizpide objektibo bat eskaintzea. Hala ere, eta nire eguneroko lanean eragina duen gai bat izanik eta sexologia sustantiboa oinarri hartuta ideiak batzuk konpartitzea gustatuko litzaidake.

- Adina igotzearen aldekoek haurren babesari heltzen diote, eta honengatik eta haur eta nerabearen onurarako adina igotzea ezinbestekoa omen da. Nik ere argi daukat, haur eta nerabe-

en babesaren behar dela, eta hori ezinbestekoa dela iruditzen zait. Baina agian babesteko erabili nahi duten lege neurri hau ez zait hain egokia iruditzen. Babestea, inolaz ere ez lukeelako izan behar, ukatzea, eta haur eta nerabearen sexualitatea ezartzea. Hau da, haurrak eta nerabeak sexualitatea dute, gorputza dute, plazera sentitzen dute, eta hori argi azaldu behar da, eta noski baliabideak jarri behar dira, bakoitzak bere gorputza nolako den ezagutzeko, gorputza entzuten ikasteko, eta gorputza maitatzen ikasteko. Hau lortzeko ezin-

bestekoa dira, hezkuntza, maila teorikoan baina baita ere hezkuntza emozionala. Esaten dugun informazioa eta formazioa.

- Legearen inguruan ere beste zalantza badaukat harreman sexualak esaten dugunean zertaz arigara? Muxuak, laztanak, begiradak... Harreman sexual moduan hartuko dira edo harreman sexual genitalak soilik hartzen dira harreman sexual gisa?

- 15 urtetako nerabe batek 19 urteko nerabe batekin harremanak dituenean, legeak esan behar dio bere bizipenak zer nolakoak diren, ze adierazten duten. Hau

da, epaileek, gurasoek, helduak harreman sexualak dituen pertsonak baino gehiago dakite berak bizi dituen emozioetaz, bizipenetaz?

Goian aipatu dudan moduan nik ere haur eta nerabeen babesaren aldekoa naiz, baina oso zorrotz eta fin jokatu behar dugu, sexualitatea, arriskuko aldagai batean bihurtu ez dadin; eta beldur naiz horrelako legeak, sexualitatearen inguruko formazioa eta heziketa landu gabe, ze nolako ondorioak ekarriko dituen.

Olatz Berastegi

barrutik kanpora

Hipotekaz kaltetutakoen plataforma

Hipotekaz Kaltetutakoen Plataforma (HAP) erabat doako elkarrekin da, eta honek eskaintzen dituen baliabide guztiak ere bai. Batzarrean biltzen gara etxebizitza kaleratze arriskuan daudenak eta boluntarioak.

Plataforma elkargune bat da, bai laguntzeko, bai kaltetutakoen eta boluntarioen artean ekintzak egiteko. Biltzengarengatik kasuak

aurkezten ditugu eta elkarrekiko aholkularitza eta laguntza praktikoa eta emozionala jasotzen dugu. Era berean gure borroka dimentsio juridiko eta politikora eramatea nahi dugu. Bestetik abokatuekin batera eskakizun bat salatzeko ikertzen ari gara, azken urteotako zenbait praktika gehiegizkoak direla iruditzen baitzaigu. Adibidez, aseguruak alferri-

kakoak dira interes tasa baxua aurre ikusten bada baina ez maximoa edo gurutzatutako bermeak. Beste alde batetik kalean salatu nahi dugu batzuek bizi duten egoera gordina, beraien kasua azalduz eta kaleratzeen aurkako borrokari egiteko prest. Ekintza hauetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Nafarroan 12 PAH plataforma

daude; Antsoain, Agoitz, Barañain, Berriozar, Iruñea, Orkoien, Iruña, Tafalla eta Tuteran. Sakanako PAH orain dela urte eta erdi sortu zen. Gure Etxean biltzen gara, ostiraletan, hamabostetik, 18:00tan kasu berriak aztertzen ditugu eta 19:00tan kaltetuen batzara egiten da. Bukatzeko Ada Colau hitzak gureak egiten ditugu "Ez gara asistentziarako gune

bat baizik eta indartzeko talde bat eta gainera denak denen artean babesten eta laguntzen diogu elkarri baldintza berdinetan. Honek desberdintzen gaitu kontsumitzaileen elkarrekin, karitate entitateekiko edo Gizarte Zerbitzuekiko. Gizarte zibil sendo eta antolatuta baten premia daukagu.

Hipotekaz Kaltetutakoen Plataforma

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net

GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •

948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net

PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net •

Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net

• 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa

Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea

Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena

Arruabarrena eta Gixane Andueza Goikoetxea

Zuzentzailea: Maria Luisa Zelaia Mendia

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza

ETXARRIKO AUTODETERMINAZIOARI BURUZKO UDAL ERABAKIA ZUHURTZIAZ INDARGABE UTZI DU EPAITEGIAK: Iruñeko administrazioarekiko auzien 2. epaitegiak

hartu du erabakia, Nafarroako Gobernuak hara jo ondoren. Behin betiko epaia eman arte hartu du neurri hori epaitegiak.

sakanerria >>

>> **Bakaiku / Iturmendi / Urdiain / Olatzagutia**

Iseka eta Larunblai aisialdi egitasmoetan izena emateko epea zabalik

Haur eta gazteei zuzendutako eskaintza da, euskaraz. Lastailaren 4ra arte eman daiteke izena, dohainik. Ikasturtea lastailaren 19an hasiko da

Aurreko ikasturtean bezala, Burundako herriek 3blai aisialdi programa hartuko dute. Haurren eta gaztetxoaren hizkuntza ohituretan eragin nahi da. Horretarako izena ematen dutenen intereseko jarduerak eginez, euskara eta ongi pasatzea lotu nahi da, harreman sareak sortuz eta indartuz. Euskaltzaleen Topaguneak kudeatzen

du Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Olatzagutiko Udalekin batera antolatzen duen egitasmoa.

Aurreko ikasturtean bezala Sakanan hiru talde sortuko dira. Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo Iseka (DBH): larunbatetan 16:30etik 18:30era. Talde mugikorra, hilabete bat herri bakoitzean, bilduko dena, txandaka. Taldearen bigarren urtea da. Olatzagutiak beste biak hartuko ditu. Larunblai (LHko 3-

6. mailak) larunbatetan, 16:30etik 18:30era, Olatzagutiko Akelarre ludotekan. Taldearen 4. ikasturtea da, beti taldekide berriei irekia. Eta Iseka (DBH) domeketan, 17:00etatik 19:00etara, Olatzagutiko Akelarre ludotekan (3. urtea dute).

Lastailaren 19tik garagarriaren 7ra, taldeak bi begiralek gidatuta, gazteen gustuetara egokitu-tako jarduerak ludikoak eginen dituzte: jolasak, sukaldaritza tailerra, eskulanak, antzerkiak, kanpaldiak, bideoak... Gainera, Iru-

Non eman izena

Euskara zerbitzuan, 948 464 840 edo euskara2@sakana-mank.com; Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo udaletxeetako postontzietan utzi daiteke izen-emate orria eta Olatzagutiko Iseka talderako liburutegiko postontzi berezian ere izen-emate orria utzi daiteke.



ñerriko haur eta gazteekin irteerak eta kanpaldi bateratuak egi-

nen dituzte, lagun berriak egiteko aukera paregabea, beraz.

>> **Errotz**



Jendea Sastrerena etxearen alean. ARTXIBOA

Sastrerengan estalpea eraikiko du kontzejuak

Errozko gizarte egoitza eta jatetxea hartzen ditu Sastrerena etxeak. Haren fatxada nagusia aurreikusi da estalpea eraikitzea. Errozko Kontzejuarena da etxea eta berak sustatu du lana. Estalpea izanda, plaza inguruari erabilera handiago eman nahi diote. Esaterako, bai jatetxearen bai gizarte egoitzaren zerbitzukoak izan daitezke. Eta festetan eguraldi txarra egiten badu musika hartuko luke.

Hainbat aukera aztertu ondoren, Errozko Kontzejuak erabaki du Sastrerena etxe fatxada nagusiari itsatsia eraikitzea estalpea, izkinan, haizearengandik babes-

tuago egonen delako horrela. Egurrezko egitura (zutabeak harrizko oinarrien gainean jarriko dira) eta teilak izanen ditu, inguruko eraikinen tipologia errespetatuz. Estalpeak 12 metro luze eta 3 metro zabal izanen ditu. Aldameneko etxerako sarbidea errazteko alde horretan arkupeak ez du teiltuan hegalki, abazpirik izanen.

Arakilgo Udalak hasierako onepenajaso ondoren lanak udazkenean hasiko dira. Lanengatik Errozko Kontzejuak 21.131,57 euro ordainduko ditu eta aurrekontuari aurre egiteko Arakilgo Udalaren 9.298 euroko diru-laguntza izanen du.

>> **Irurtzun**

Eskualdeko Gizarte Zerbitzua Europara salto egiteko asmoz

Kontinenteko beste 24 erakundekin batera proiektu bat aurkeztu du "Europa herritarrendako" programan

Garagarzaroan jaso zuten Irurtzun aldeko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen programan parte hartzeko proposamena. Poloniako Lodz eskualdeko garapen agentziak egina zen. Parte hartzea onartu zuten eta poloniarrek koordinatuta Europako 25 erakundek bat egin dute. Europako Batasunari, **Europa herritarrendako** programaren bidez diru-laguntza eskatu diote **Europako eskualdeak gizarteratzearen alde** proiektuarekin. Eskera onartua izanen balitz 25 erakundeak elkarren esperientziak partekatzeko jardunaldiak antolatuko lirake.

Eduarne Razkinek eta Mikel Razkinek esan digutenez, Eguberritan jasoko dute erantzuna. Eskera onartuko balitz, 25 erakundeen artean sare sortu, harremanak izan eta etorkizunean elkarlanean aritzeko atea zabalduko litzatekeela esan digute. Biek esan digutenez, "Kri-



Proiektua onartzu gero, mintegiak, hitzaldiak, arte lehiaketa... etorriko dira.

siatik eta, beste eskualdeetan egoera zailak pasatzen ari dira eta handik ekartzeko moduko ideiak egon daitezke". Langileek azaldu digutenez, "orain arte Europako Batasunak hartutako neurriak toki guztietara iritsi diren, eta nola, ikertu nahi dute". Besteak beste, Europako estrategiak, gizarteratzearen garapena, gizarte zibileko elkarriketa, garapen iraunkorra...

Parte hartzeaz

Irurtzunge bulegotik azaldu duteenez, proiektua onartzen badiete "25

kideak eskualdeen arteko sare bat osatzen hasiko dira maila batzuetan, gizarte kohesioaren politika xede izanen duena". Egitasmo hori bulkatu duten erakundeen artean tokiko gobernua, GKEk, EBkongoi mailako erakunde politikoak eta herritarrak daudela zehaztu digute. Ekimenak EBko herrialde "berriak" zein "zaharrak" bildu ditu: Polonia, Espainia, Hungaria, Bulgaria, Errumania, Italia, Lituania, Belgika, Britainia Handia, Malta, Suedia eta Montenegro.

+www.guaixe.net

www.citroen.es

MUNDU GUZTIA ZURE AUTOAN

CITROËN C4 PICASSO BERRIA

ESPAINIAN EGINDA

TECHNOSPACEA

CITROËN nahigo du TOTAL

KONTSUMO MIXTOA (100KM/L) CO₂ EMISIOA (KM/G): CITROËN C4 PICASSO: 3,8-6,3/98-145

CITROËN

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

SAN MIGUEL AUTO-TAILERRAK S.A. Citroën Kontzesionario Ofiziala. Iruñeko etorbidea z/g • ALTSASU • 948 562 261 / Akabarro industrigunea • IRURTZUN • 948 600 657

Aierbe gogoan

Igandean 12 urte beteko dira Inozentzio Aierbe Irañeta hil zela (1912-12-28 / 2001-09-22). Urteetan Aralarko Santutegiko kaperaua izan zenak arrasto handia utzi zuen jende askoren artean, bereziki sorlekuan, Uharteko Arakilien. Horregatik, bihar larunbata, 20:00etan, Uharteko Arakilien bere oroimeneko meza eginen da. Aralarko Santutegian Aierberen aldeko meza igandean izanen da, 12:30ean.

Aingeru bisitaria

Larunbatean Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiako kideak Irantzuko monasterioan izan ziren aingeruaren irudia eta guzti. Bihar Kofradiak Orreaga bisitatuko du. Meza 11:00etan hasiko da. Kofradeek parte hartu nahi duten guztiei gonbitea luzatu diete. Irteerak kofradiak urtero bere moduko erakundeak dituzten Nafarroako beste santutegietara egiten dituen bisiten barruan daude.

>> Irurtzun

Primerako erantzunarekin berreskuratu zen ganadu azoka

Latxa ardiaren hobekuntzaren alde lan egiten duen Aslana elkartearen diru-laguntzen murrizketa salatu zuten

Eguna argitzearekin hasi zen mugimendua Irurtzango plazan. Bertako ganadu arrazen aleak Foru plazako frontoian kokatu ziren. Nekazari eta abeltzainen salmenta postuak plazan bertan eta aldameneko Lizarra kalean artisau postuak jarri ziren. Goizetik gutxi batzuk hurbildu zirenak, baina eguerdia hurbildu ahal asko eta asko izan ziren Irurtzango azokak erakarri zituen pertsonak. Gaitari, trikitilari eta joaldunen doinuek girotu zuten azoka, baita Brun forjarien jardunak ere.

Antolakuntza aritutako Jesus Balda artzain unanuarra pozik zegoen aurretik azoka prestatzen egindako lanak emaitzak eman dituelako: "eguraldiak lagundu egin du eta jendea animatu egin da". Jendea erosketak egiten ari zela nabarmendu zuen unanuarrek.



Aslanaren izenea Jesus Baldak jaso zuen makila. Han zeuden Irurtzango, Uharteko Arakilgo, Etxarri Aranazko, Arbizuko eta Ziordiko alkateak eta hainbat zinegotzi.

Halako ekimen gehiago etorriko direla aurreratu zuten Belardiko antolatzaileek: "gure helburua plazak berreskuratzea da. Nekazari eta abeltzainok plazak berreskuratu ditugu eta bertako produktua

eskueskura jarriko ditugu". Sakan-darrak halako ekimenetan parte hartzen eta baserriak laguntzera animatu zituzten Belardi ekimeneko kideak.

+www.guaixe.net

Egoeraren larriaz

Baldak esan zigunez, "gauzak gaizki daude. Artzainak, ahal den moduan, aurrera ateratzen ari gara. Baina, elkarteak, gaizki. Nafarroako Gobernuak murrizketa latzak egiten ari da". Elkarteak teknikiari oso onak direla aitortuta ere, Aslana diru aldetik oso gaizki dagoela aitortu zuen artzain unanuarrek. Aritz Ganboa artzain arruazuarrek gaineratu zuen latxa ardiaren etorkizuna bermatzen duen elkarteak, Aslanak, agian ez duela urte bete iraungo. "Horrek esan nahi du 30 urtetan egindako lana piktura joanen dela. Elkarteak tresna da. Latxa ardia mendian ikusten badugu, Idiazabal gazta dastatzen badugu, Aslana bezalako elkarteek egiten duten lanagatik da". Elkarteak desagertuz gero, galdutako denbora berreskuratzeko 30-40 urte beharko liratekeela gaineratu zuen arruazuarrek. "Gauegun



elkarteak egiten duen lanaren emaitzak 3, 5, 10 urtetan ikusten dira. Gaurko lana etorkizunean emaitzak lortzeko da. Eta hori ez bada egiten etorkizunik ez daukagu". Aslana desagertzea artzainendako arazoa izateaz gain jendarte guztiarendako arazoa izan litekeela ziurtatu zuen Ganboak: "kultura, ingurumen kudeaketa, herrietako sozio-ekonomia jardueran eragina luke. Tragedia baten aurrean gaude". Nafarroako Gobernuak Aslanaren arazoa "beretzat" hartu beharra du eta finantziarioa bermatu behar dela aldarrikatu zuten artzainek, "bere ardura da".

>> Hiriberri

Kontzeju etxe gainean erabilera anitzeko gela egiten da

Arakilgo Udalak eta kontzejuak akordioa sinatu dute lanak finantzatu eta erabilera koordinatzeko

Hiriberriko kontzeju etxean toki erakundearen egoitzaz gain, mediku kontsultategia eta squash dauka. Lehen solairua hutsik dago. Hiriberriko Kontzejuak hura egoitzeko lanak berak bakarrik ezin zituenez egin, Nafarroako Gobernuari diru-laguntza eskatu zion.

Ikusita jasotako diru-laguntza zein izanen zen Kontzejuak Arakilgo Udalarari egitasmoa handitzea proposatu zion. Igogailua eta guzti izanen duen erabilera anitzeko gela egitea 134.059 euroko inbertsioa eskatzen duen lana da

eta, berriki, Nafarroako Gobernuaren Lau urteko Tokiko Azpiegitura Planetik 65.160 euroko diru-laguntza jaso da. Aurten 52.000 euro inguru jasoko dira lan horiek egiteko eta gainontzekoa heldu den urtean. Lanen aurrekontua osatzeko Arakilgo Udalak 50.000 euro jarriko ditu eta Hiriberriko Kontzejuak 18.899 euro. Dagoeneko lanak egiteko eskaintzak jaso dituzte eta hilaren akaberan jakin da zein enpresak egiten dituen.

Hitzarmena

Arakilgo alkate Ruben Goñi Urrozek gogo onez hartu zuen Felix Unanua Iaben kontzejuburuak proposatutakoa. Izan ere, Arakilgo Udalarendako interesgarria da kontzejuen eta arakildarren arteko harremana estutuko duen espazioen sare bat izatea eta, horrela, udalak ematen dituen zerbitzuak hobetzea.

Bi aldeek 20 urterako akordioa sinatu dute. Udalak Hiriberriko lana finantzatzeko truke (30.000 inbertsio gisa eta 20.000 aurrerapen gisa) epe horretan erabilera anitzeko gela dohain erabiltzeko aukera izanen du. Han ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak eta bestelakoak antolatzeko aukera izanen du Udalak. Beti ere, erabilera kontzejuarekin koordinatuz. +www.guaixe.net

>> Etxarri Aranatz



Larunbatean, 12:00etan, meza izanen da eta, ondoren, auzatea. UTZITAKOIA

Konzezio ermitaren zaharberritzea bihar mustuko dute

Lan askoren ondoren despeditu dira Konzezio ermita berreskuratzeko lanak. Asmo horrekin elkar-tu zen orain dela sei urte etxarriar talde bat eta Konzezio Baselizaren Lagunak taldea sortu zuten. Egiteko bukatu ondoren, pozik daude taldeko kideak, lana egiteko etxarriarrek parte hartu duelako, argi baitute haiek bakarrik ezin zutela, bestela, halako lanik egin.

Zaharberritzea aurrera atera duten guztiei eskerrak eman dizkiete. Asko izan dira Migel Anjel Sagasetak idatzitako liburua edo loteria erosi dutenak, haien ekarpena Nafarroako Kutxako proiektuan egin dutenak edo zuzenean dirua eman dutenak. Gainera, Udalaren, parrokiaren eta Etxarri Aranazko Abesbatzaren laguntza (Egu-

berritako hiru kontzertutakoa egitasmorako izan da). Jendeak debozioa duela eta ermitarekiko lotura dagoela (jende askok paseatzen du handik) argi ikusi dute taldean. Inork galderarik badu erantzuteko prest ere azaldu dira.

Lau zatitan

Konzezio Baselizaren Lagunak 2007an sortu bazen ere, ermitan aurreneko lanak 2009an egin ziren. Teilatua, bobeda eta estalpea konpondu zituzten orduan. 2010ean ermitaren kanpoko eta barruko fatxadak konpondu ziren. 2012ko ilbeltzean jubilatutako elkarteak boluntario talde bat lanean hasi zen eta korua, eskailerak, leihoak eta zorua konpondu zituzten. Azkenik, aurtengo garagarrilean, jubilatutako

Oharra

Autoak aparkatzeko tokirik ez dagoenez, ermitara oinez joateko gomendioa luzatu da.

Kofradia indartu

Behin ermita zaharberritu ondoren, hondatu ez dadin hura mantentzeaz eta garbitzeaz kofradia arduratuko da. Kofradia izan zen aurri egoeran zegoen Lazkoz herriko eliza zutitu zuena eta 400 urtetan mantendu duena. Gaur egun Konzezioko kofradiak kide gutxi ditu. Horregatik, interesa duenak abendura arte Blanka Kintanari izena emandiez aitzak. Asmoa da gero, Konzezio egunaren inguruan (abendua 8), bilera bat egitea.

Bilera horretan mantenu lanaz gain, urtean behin ermitara erromeria egiteko data ere zehaztuko da. Berezko eguna, abenduaren 8a, udazken hotzean izatean bestedata batera aldatzeko aukera ere izan liteke. Hala erabakiko balute, aukeretakoa bat litzateke urtean zehar Ama Birjinaren omenez ospatzen diren bost festetako batean izatea. XX. mendean haien bezperetan joaten zen Konzeziara erromerian.

berak sarrera txukundu du. Erretaula, bestalde, desmuntatu eta Iruñean zaharberritu dute. Ondoren zerbait zuhaitz landatu dituzte.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

» Olatzagutia

CPVk zementuaz aparte magnesio-oxidoa eta dolomia sinterizatua produzituko ditu

3 Mugak Batera plataformak ohartarazi du jarduera berria "oso kutsagarria" dela

Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak, Andres Eciolaza Carballok, Ingurumen Baimen Integratu berria eman dio Cementos Portland Valderrivas, S.Ari (CPV). Baimen horren arabera, hainbat baldintza betez, enpresak Olatzagutiko porlandegian zementua fabrikatzeaz aparte magnesio-oxidoa eta dolomia sinterizatua produzitzeko aukera du.

CPVk martxoaren 20an egindako jarduera aldaketa eskaeran adierazi zuen magnesio-oxidoa eta dolomia sinterizatua ekoizteko jarduerak ez duela lau urte baino gehiago iraunen eta, horregatik, 2017ko martxoaren 26ra arteko jarduera baimena izanen du CPVk.

Beraz, Europako araudiak lau urtetik gorako jarduerendako ezarritakoa ez da Olatzagutiako porlandegian aplikatuko. Hau da, agintaritzak eskudunak emisioen gehieneko balioak ez ditu finkatuko,

industriaren ohiko funtzionamendu baldintzetan, eskura dauden teknika onenei lotutako emisio-mailak gainditzen ez direla ziurtatzeko. Ebazpenean argudiatzen denez, "ezartzeko kostuak neurritz kanpokoak dira ingurumen onuraren aldean".

Isurketa baimenak, bestalde, bost urteko indarraldia du, eta iraupen bereko epeetarako berri-tutzat joko da, baldin eta isurketek unean-unean indarra duten ingurumen kalitatearen arauak betetzen baditu porlandegiak.

Oso kutsagarria

Porlandegiko jarduera berria hala dela uste du 3 Mugak Batera (3MB) plataformak. 3MBkoek Nafarroako Gobernuari leporatu diote "azpikeriaz eta iluntasunez jokatzuz, herritarren inolako parte-hartzerik gabe" CPVri baimen berria ematea. 3MBtik azaldu dutenez, "orain arte magnesita ekoizpena Zubirin egin da eta fabrikak isuritako kutsatzaileak arazoak sortu ditu inguru-



Olatzagutiko porlandegia.

ko herrietan". Gaineratu dutenez, "prozesuan ekoizten SOx emisioak industria kutsatzaileenek (termikoak edo kimikoak) isurtzen dutena baino handiagoa da".

Plataformatik gogorarazi dute porlandegiak dagoeneko 55.500 tona hondakin erretzeko baimena duela. "Orain porlandegiak Zubiritik hasita 23.000 kamioik ekarriko

duten minerala erretzeko asmoa du. Han erabiltzen duten materiala baino ia %50 gehiago, han ekoizten dena baino %35 gehiago ekoizteko".

3MBtik ohartarazi dute "eskualdeak jasan beharko duen kutsatzaileen maila izugarria" izanen dela. "CPVri eman zitzaion azken baimenak, berez zementu ekoizpen prozesuari dagozkion

salbuespenez gain, errauskailu baten antzeko kutsadura mailak ahalbideratzen dizkio. Horri orain, produktu berriaren ekoizpenari dagozkion salbuespen berriak gehitu behar zaizkio". Nafarroako Gobernuaren jokabidea "lotsa-gabea" dela salatu dute, Zubirin Magna enpresak betetzera behar-tutako neurriak Portlandi betetzera ez behartzeagatik. Zubiriko enpresa estatuko kutsatzaile nagusien zerrendan lehen postuetan dagoela gaztigatu ondoren, porlandegiaren emisioa maila hura baino handiagoa izanen dela ziurtatu dute plataformatik.

CPVren jarduera berriak lanpostu berririk ez duela sortuko eta enpresak bere kaleratze planarekin segituko duela azaldu dute 3Mbrako kideek. Aldi berean, ekoizpen berriak eskualdeko beste sektoreak kaltetuko dituela azpimarratu dute. Ahaztu gabe "halako kutsadura maila duten guneen inguruan gaixotasun larriak harrapatzeko arriskua handitu egingen dela".

» Hiriberri



Hiriberriko industrialdea.

Enpresa berri bat industrialdean

Berokuntzarako erradiadore elektrikoak muntatu eta merkaturatu arte biltzeko jarduera martxan jarriko da Hiriberriko industrialdean. 700 metro karratu inguruko pabilioi bat hartuko du enpresa berriak. Tecnicas Energeticas del Norte SA enpresa da jarduera hori aurrera eramanen duena. Bost langile izanen ditu. Haietatik lau ekoizpenean ariko dira eta besteak bulegoan. Administrazio aurreko tramiteak despeditzean jarriko da martxan enpresa berria.

» Errotz

Oskiako harrobiaren errestiturazio planaren aurkezpen publikoa

Irailaren 26an, ostegunean, 18:30ean, Izurdiagako kontzejuetxean

Arakilgo Udalaren eskaerari erantzunez, enpresa kudeatzaileak heldu den astean Oskiako harrobia errestituratzeko plana azalduko die arakilgarrei. Udalean oso garbi dute Nafarroako Gobernuak Canteras Oskia enpresari emandako baimena "estalitako ustiapena" dela, "errestituratzeko ustiatuko dute". Udalak gertutik jarraituko ditu lanak eta, horregatik, jarraipen batzordea sortu da. Hura Nafarroako Gobernuak (ingurumen eta mehatze teknikariak),

enpresa ustiatzaileak, Atondo eta Errozko kontzejuek eta Itza eta Arakilgo udalek osatzen dute.

Oskiako harrobian segurtasun arrazoiengatik egingen da errestiturazio plana. Alde batetik, harrobiko mailek ez dute mehatzeen inguruko legeak agindutakoa betetzen. Eta, bestetik, ustia-ketaren ondoren Bizkai mendiarren tontorra ezegonkor dago. Horregatik, mendiari punta janen diote, harrobiko mailek zabaldu eta dauden maldak leundu egingen ditu enpresak, Canteras de Oskiak. Horretarako gutzirako Bizkai mendian bide

Hormigones Oskiaren jarduera arautzeko bidean



Hurbileko harrobiko lehengaiarekin eraikuntzarako materialak egingen ditu Hormigones Oskiak Errotzen, Txarruka, Basalde eta Ermitagaina dermioetan. Enpresa aspalditik dago han. Baina Arakilgo Udalean kexu ziren, enpresan nola lan egingen ari ziren, ingurumen arloan eta legedia betetzen zen ere ez zekitelako. Enpresa jarduna erregulatzeko hiru aldeko akordioa lortu da Arakilgo Udalaren, Nafarroako Gobernuaren eta Hormigones Oskiaren artean. Adostutakoaren arabera, enpresak dagoeneko jarduera sailkatuko udal-izentzia eguneratzeko txosten teknikoak aurkeztu du Udalean.

berriak zabalduko dituzte.

Lan horiek egin ondoren, lurra zabaldu eta zuhaitzak landuko dituzte. Enpresak 13-14 fasetan egingen ditu lanak eta 10 urte iza-

nen ditu lanak despeditzeko. Fase bakoitzean enpresak egin beharreko lanak eta bete beharreko epeak zehaztuta daude. Behetik gora egingen dira lanak.

Iturgintza
Berogintza
eta Gas

PEIO

659 286 344

TEXIKO
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 - ALTSASU

BUJANDA
okindegia

bai

Tel.: 948 467 503
Kale Nagusia 31, OLAZTI

xapatero
taberna

948 460 162
Etxarri-Aranatz

LARRAZA
ARDOAK

Tel.: 948 460 014

Zugarreta 2
Etxarri-Aranatz

» Arruazu

Tartalariak azaroaren 18an epaituko dituzte

Espainiako Auzitegi Nazionalan lau pertsonen aurka hasiriko prozesuaren artxibatzea exijitu dute, baita Abiadura Handiko Trenaren lan guztien berehalako gelditzea

Abiadura Handiko Trenaren "inposaketaren" kontra protesta gisa Mugitu! Mugimenduko (M!M) kideek Yolanda Barcina Angulo Nafarroako presidenteari tartak bota zizkioten 2011ko lastailaren 27an. Gertaera hargatik lau pertsona daude Espainiako Auzitegi Nazionalan auzipetuak.

Haietako bat Gorka Ovejero Ganboa arbazuarra da eta "agintaren aurkako atentatuaren zuzeneko egile" izatea egotzita fiskal-

Kanpaina

Tartalariak sostegua adierazteko eta epaiketa salatzeke uda aurretik martxan jarri zen kanpaina indartu egingen da. Informazioa zabaltzeaz eta diru bilketa egiteaz gain, tartalarietako elkartasun manifestu bat zabaldu da, atxikimendu pertsonalak edo kolektiboak emateko. Azarorako ere hainbat mobilizazio antolatuko dituzte.

tzak 5 urte eta 2.700 euroko isuna eskatzen du; Barcinaren akusazio partikularrak, berriz, 9 urte eta



Auzipetuak eta babesak azaldu dieten herritarretako batzuk. UTZITAKOIA

5.400 urteko isuna. Auzipetuek Gorenearan helegiteak aurkeztuak dituzte. Baina ebazti aurretik dagoeneko ezarri diete epaiketa data.

M!Mtik salatu dutenez, eskutako "zigorrek oso larriak eta neu-

rrigabeak dira, mendebaldeko inongo herritan parerik ez dutenak. Antzeko tartajaurtiketek oso ondorio legal arinak izaten dituzte, izatekotan, eta hutsegite epaiketa batean bukatzen dira".

» Etxarri Aranatz

Esku txuriak hondo urdinaren gainean, berriro, Txartxenekoan

Ulaiar familiak eta Libertad Ya! elkarteko kideak sortetxean ETA goratzu egindako pintadak borratu zituzten

Jesus Ulaiar Lizziaga etxe aurrean ETAk hil zuela mende laurdena bete zenean, 2004an, margotu zuten estreinakoz horrela sortetxeko fatxada senide eta lagunek. Altxatutako esku txuriak ETAREN indarkeriaren kontrako irudia izan ziren urtetan. Eta mural hura eginez aldarri hori zabaldu nahi izan zuen Ulaiar Mundiñano familiak herrian.

Aurreko igandean ETA goratzu pintadak agertu ziren Ulaiardarren etxean, Txartxenekoan. Haiak eta aurretik zudenak ere ezabatu zituzten larunbat goizean. Behin



Hondo urdinaren gainean esku txuriak margotzen. WWW.ABC.ES

pintura urdina zabaldu eta hura lehortzen zen bitartean senideak, zenbait etxarriarrek eta Libertad Ya! elkarteko kideak, tartean Mait Pagazaurtunduak, gosalduegin zuten Maiza plazan. Eta pintura

urdina lehortu zenean bildutako guztiek eskuak pintura txurian busti eta urdin gainean haien arrastoa utzi zuten. Duela bederatzire urte margotutako esku txuri batzuk ere utzi zituzten.

SAKANA

PSNko parlamentariak hamabostean behin herrian izanen dira

Herritarrei harrera egiteko hurbiltasuneko parlamentari bulegoa martxan jarriko du

Horixe da asteburuko alderdi sozialistaren Batzorde Erregionalaren bilerak utzi duen ondorioetako bat. Kurtso politiko berriaren hasierako bilera horretan sozialista nafarrek "herritarrek positiboan aldaketa politikoa egiteko eskaerari erantzuteko apustua" onartu dute, "gobernu alternatiba politikoa progresista" sustatuz, eta "Nafarroako erakunde markoa guztiz errespetatzen duena". Alderdiko idazkari nagusi Roberto Jimenezek "lehenetsuneko jarduerako hiru ardatz" ere baloratu zituen: gardentasuna, parte hartzea eta irekiztea.

» Irurtzun



Ikastaro eskaintza zabaldu izanen da.

Helduendako hezkuntza eta aisialdi-ikastaro eskaintza zabaldu

Irurtzungeko Udalak eta Kultur Kontseiluak ikasturte berrirako aisialdi eta gorputz jarduerak eskaintza prestatu du. Irurtzundarrek aukeratu duten ikastaroen artean daude: eskulana, marrazketa eta pintura, antzerki tailerra, irakurketa taldea, mantenu gimnasia, aerobika, pilatesa, gorputz jarrerren berrordenatzea, bizkortzea/gapeta kirol entrenamendua.

Interesa dutenek hilaren 27ra arteko epea dute izena emateko. Ordaindu beharreko ikastaroetan matrikulako dirua Udalaren Laboral Kutxa-kontu korrantean sartu beharko dute, izen abizenak eta ikastaroa aipatuz. Ordainagiria eta izen emate-orria beteta udaletxean edo kultur etxean aurkeztu behar dira. Doako ikastaroetan ere beharrezkoa izanen da izen-emate orria aurkezteko. Informazio gehiago nahi duenak kultur etxean edo www.irurtzun.es web orrian du.

GEHIAGO

Uda eskaintzaz aparte, Irurtzunen ere bestelako ikastaroak izanen dira ikasturte berriari: euskara, dantzak, atzerriarrendako gaztelania, ingelesa, bach loreak, jantzigintza eta arroparen birziklatzea, argazkia/photshop, mikologia hastapena, latindardantzak eta areto dantzak, haurrendako yoga, fibromialgia eta neke kronikoko sindromea dutenendako ariketak, zeramika eta lurrezko eskulturak, zumezko saskigintza, nekazaritza ekologikoa, harrijasotzaile eskola eta kick boxing.

SAKANA

Bilduk Sakanako eskubideak defendatzen eta ongizatearen alde lanean segituko du

Traba guztien gainetik ilusioz aurrera, mezu hori zabaldu nahi izan du Sakanako Bilduk udako errepasoa egiterakoan eta ikasturte berrirako aurreikuspenak azaltzerakoan.

Aurreratu zuten, ikasturte berriari "beste inposaketa bati ere modu egokian erantzutera behartuta egonen gara. Alkatetzak kentzeko mehatxupean, indarrez, Espainiako bandera jartzera behartuko gaituztelako herritarren borondatearen aurka". Azaldu zuten, ez dute dudarik "sakandarrok maila eman dugula eta jartzera behartutakoa kentzerako bideari ekinen diogula herritarren presioari esker indarrak bilduz".

Koalizioko alkateek ziurtatu zuten Sakanan badela planik. "Errazago litzake, noski, Gobernuak plan hori garatzeko medio tekniko eta diru-laguntzak eman balitu". Hala ere, "bertako bidea



Urrestarazu, Bakaikua, Rodriguez eta Garin herenegungo prentsaurrekoan.

rekin jarraituko dugu eskura ditugun tresnak erabiliz". Horien artean aipatu zuten hainbat eragile egiten ari diren Sakanako Plan Estrategikoa. "Hurrengo urteetan Sakanaren garapena nondik nora joan beharko duen ipar orratza izanen da". Ibarreko arlo guztietako eragileek "Sakanatik Sakanarako lan ildoak garatuz, ibarra ekonomikoki eta sozialki suspertu eta

suspertze hori modu jasangarri (giza, ekonomiko, ekologiko), duin, orekatu eta bertakoon ongizatearen berme izan dadin".

Zorionak

"Bildun harro gaude benetan, Sakanako herriak erakutsitako maila eta inplikazioagatik". Uda-ko errepasoa egiterakoan sakan-darrak zoriondu zituzten. Lehenik

>> Altsasu

LABek Sunsundeguiko langile ohi baten heriotza salatu du

Gaur, ostirala, 12:00etan, Iruñean, CENen egoitzaren aurrean elkarretaratzea deitu du. Atzo arratsaldean Altsasun manifestazioa deituta zegoen

Bere buruaz beste egin zuen asteartean Sunsundeguiko langile ohi batek, J.P. (45 urte, Altsasu). LABetik samina eta elkartasuna adierazi diete hildakoaren familia, lagun eta lankideei. Gauza bera egin du Bilduk. Hildakoa LABeko afiliatua zen eta Sunsundeguiko hauteskunde sindikaletan LABeko zerrendetan aurkeztu zen.

Sindikatu abertzale jakinarazi dutenez, zendua 2010ean beste hainbat lankiderek inpresatik kaleratua izan zen, urtera bueltatzeko aukerarekin, eta hala

egin zuen. LABetik azaldu dutenez, Sunsundeguin akordio bat zegoen eta haren arabera Enplegu Erregulazio Espediente (EEE) gehiago izanez gero urte baterako kaleratutako langile haiek balizko espedienteaz azkenak izanen zirela, langabezia prestazioaren erdia baino gehiago erabiliz zutelako.

“Akordioak jasotzen zuenaren kontrara, 2013ko apirilean, berriro kaleratu egin zuten beste 40 lagunekin batera”. LABek orduan jazarpen sindikala salatu zuen, enpresan babes gutxien zuen sindikatua izan harren kaleratutako langileen erdia bere afiliatuak zirelako. Sindikatuak salatu due-

nez, gaur egun enpresan 50 langile berri baino gehiago ari diralanean, guztiak Aldi Baterako Lan Enpresen bidez.

Irakurketa

LABeko kideendako heriotza hori ez da kasu isolatua. LABek salatu duenez, “lan erreforma guztiguztiek langileen kaleratzea erraztu dute. Etxegabetze bakoitzaren atzean lanpostua galdu duten pertsonak daude”. Murrizketen ondorioz langabeek gero eta prestazio txikiagoak dituztela eta prekaritate gero eta hedatuago dagoela nabarmendu du LABek.

Kapitalaren eskutik etorri diren erreformen eraginez mila-



Atzoko manifestaziora deitzen zuten kartelak.

ka eta milaka herritar lurjota gertatzen ari direla salatu du LABek. Murrizketek babes soziala deuseztatzen ari dela nabarmendu dute... “Ondorioz gaixorik dago gizartea, hain gaixorik, ezen herritar askok beren buruaz beste egitea erabakitzen dutela”.

Heriotza horren aurrean patronalak eta gobernu neoliberalak

salatu ditu LABek. “Ahaztu egiten dute zenbaki bakoitzaren atzean pertsona bat dagoela, bizi proiektu bat. Kaleratzea edo kaleratze mehatxua da une honetan lan zentroetan erabiltzen ari diren mehatxu nagusia”. Sindikatutik azaldu dutenez, zenduaren kasua “ez da krisi garai hauetan, ez enpresa horretan, ezagutu dugun bakarra”.

SAKANA

Igeriketa, musikoterapia eta beste ez gaituendako

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Sakanako Ez Gaituen Elkartaren laguntzarekin, ez gaituendako ikastaroak antolatu ditu. Ikastaroak ez gaitasunen bat daukaten Sakanako edozein pertsoneri daude bideratuta.

Batetik, igeriketa eta soinketa eskainiko zaie, Arbizuko kiroldegian. Bi aukera daude: igeriketara eta soinketara etortzea, edo soilik soinketara etortzea. Ikastaroa urriaren 7tik maiatzaren 19ra izango da, astelehenetan eta ostegunetan, 17:00etatik 18:00etara. Ikasturte osoak 50 euro balio du.

Bestetik, musikoterapia eta psikomotrizitate ikastaroa antolatu da Altsasuko Intxostiapunta gaztegunean. Ordu bateko saioa izanen da, larunbat goizetan, hilabetean

Izena emateko

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzua (948 464 866 telefonoa edo kirolak@sakanamank.com posta elektronikoa).

bitan, 10:00etatik aurrera Maite Ulazia Mikeo monitorea eskainia. Ondoko egunetan: urriak 5, 9; azaroak 9, 23; abenduak 7, 21; ilbeltzak 11, 25; otsailak 8, 22; martxoak 8, 22; apribilak 5, 12; maiatzak 10, 24 eta ekainak 7, 14. Izena ematea zabalik dago irailaren 27ra arte, Mank-eko kirol zerbitzuan. Sakanako Ez Gaituen Elkartekoak direnei elkarrekin ordainduko die ikastaroa. Gainontzekoek, aldiz, 50 euro ordaindu beharko dituzte.

SAKANA



EHEko kideak Ezabaketa Egunean Osasun Etxean euskararen aldeko kartelak jartzen. ARTXIBOA

Osasunbideak hizkuntza konpromisoak betetzeko eskatu du UEMAK

Duela bederatzik hilabete bildu ziren eta bitartean Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera sustatzeko ez direla neurririk hartu salatu du mankomunitateak

Euskararen Legean jasoa dagoenez, udalerririk euskaldunetan “herritar guztiek, Administrazio Publikoetako harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta berek hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute”. Udalerririk euskaldunetako Mankomunitateak (UEMA) nabarmendu du udalerririk euskaldunetako osasun zerbitzuek hutsune larriak dituztela euskarari dagokionean.

Horregatik, joan den urteko abenduaren 17an UEMAK eta Osasunbideako ordezkariak bildu ziren. Mankomunitateak eremu euskaldunetako osasun zerbitzuetako lanpostuei ezarritako hizkuntza perfilek herritarrek euskaraz artatzerik bermatzen adierazi zion eta

neurriak hartzeko eskatu. Osasunbideako arduradunek gaia lantzeko eta ilbeltzean beste bilera bat deitzeko konpromisoa hartu zuten.

UEMAk bilera deirik ez du jaso oraindik eta “egindako azterketaren emaitzek erakutsi dute osasun zerbitzuan euskararen erabilera sustatzeko neurririk ez dela hartu”. Mankomunitatearen iritziz “Osasunbideak, eskaintzen duen zerbitzuekin herritarren hizkuntza eskubideak urratzeaz gain, udalerririk euskaldunetako egoera soziolinguistikoa kaltetzen du”. Horregatik, bilera berria eskatu dio UEMAK Osasunbideari.

Eskakizun zehatzak

Osasunbideari egindako eskaerak honakoak dira: Emakumeen Arretarako Zentroetako lanpostuei euskarazko perfila jartzea (plantila organikoan); osasun zen-

troetan euskarazko perfila ez duten lanpostuei euskarazko perfila jartzen hastea (pediatrei, medikuei eta jendaurrean lan egiten dutenei lehentasuna ematea); V1 perfilak ez duenez euskaraz zerbitzua emateko eskasegia denez, V3ra igotzea; euskarazko plazen ordezkotan euskaldunak egonen direla bermatzea.

UEMAk ere gainerako arloetan urratsak ematen hastea (hizkuntza-paisaia, informazio-orriak, mamografiako zitazioak, mamografiako txostenak, erradiografia zerbitzuko inkestak, hitzorduak jartzeko SM -mezuak, baja-agiriak...); Larrialdietako zerbitzuetako langileen hizkuntza perfilak zehaztea. Gainera, UEMA eta Osasunbidearen artean hartu-eman eta elkarlan iraunkorra izatea eskatu zitzaion, euskalduntze prozesua garatu ahal izateko.

>>

Neke kronikoaren sindromea eta fibromialgia dutenendako soinketa Altsasun eta Irurtzunen

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, AFINA (Nafarroako Fibromialgia Elkarte) elkartarekin batera, minusbalotasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen osasuna hobetzeko jarduerak fisiko espezifikoa eskainiko die Altsasun eta Irurtzunen. Helburua fibromialgia, neke kronikoaren sindromea eta sentiberatasun kimiko anizkoitza duten pertsonen osasuna hobetzeko jarduerak fisiko espezifikoa eskaintzea da.

Ordutegia

Aipatu soinketa ikastaroa Altsasun (Labaderon) eta Irurtzunen

Izena emateko

Izena ematea zabalik dago irailaren 27ra arte Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866). AFINAko bazkideek 31 euro ordaindu beharko dituzte hiru hilero, eta bazkide ez direnek 42 euro hiru hilero.

(Kultur Etxean) eskainiko da, urritik ekainera, asteartetan eta ostegunetan. Altsasun 16:00etatik 17:30era eta Irurtzunen 18:00etatik 19:30era.

IRRISTAKETA

FERNANDEZ "EL PAJARO" BAINO AZKARRAGO: 90 metro nork azkarrago osatzeko dueluan, Ioseba Fernandez irristalari

iturmendierra Espainiako atleta azkarrena den Angel David Rodriguez "El Pajaro" korralaria baino azkarragoa izan zen.

Areto futbola



Xota Bk 9-4 irabazi zion Colo Colori.

Punteriarik gabeko Xota

Xota Nafarroak ostiralean eman zion hasiera denboraldiari, kategoriaz igo den Montesinos Jumilla taldearen kontra etxean arituta. Tamalez, 1-4 galdu zuten Imanol Arregiren mutilek. Jumillako Chicoatezainak geldialdi bikainak egin zituen, berdeen ametsak zapuztuz, eta punteria faltanabarmena izan zuten irurtzundarrek.

HURRENGOA, BURELA

Inter Movistar da liderra, Bartelorenarekin eta Montesinos Jumillarekin puntutara berdinduta. Xota Nafarroa 14.a da, punturik gabe. Gaur, ostiralarekin, ligako 2. jardunaldia jokatu du Xota Nafarroak Burela Pescados Ruben taldearen kontra, Burelan (Lugo). 22:30ean jarraitu ahal izango da lehia, Energy telebista katearen bidez.

Triatloia

Peñagarikano 3.a Donostian

Donostiak Wild Wolf Triathlon Series txapelketa hartu du, sprint mailan eta maila olinpikoan. Sprint mailako triatloian Juanjo Agüero izan da azkarrena (1:03:13). Hirugarrena sailkatu da Sakana Triatloi Taldeko Urko Peñagarikano urretxuarra (1:08:54). Urko kadete kategoriako lehena izan da.

Mendi lasterketak

Joxeja Maiza txukun Plazaolatik mendi erdi maratoian

Lekunberrik VII. Plazaolatik mendi erdi maratoia (21 km) hartu zuen igandean. 135 korrikalari iritsi ziren helmugara, Josu Erkizia buru zela (1:15:35). 3 minutu aterazizkion Iñaki Reyri. Joxeja Maiza etxarriarrak lan bikaina egin zuen eta 7.a izan zen, (1:24:04). Iñaki Lacalle olaztiarra 103.a iritsi zen (1:46:14).

UNZURRUNZAGA AXARIN

Egun berean Idiazabalen jokatu du I. Axari Trailean (24,6 km) 216 korrikalari iritsi ziren helmugara. Ionut Zinca izan zen irabazlea (2:01:25). Ander Unzurrunzaga etxarriarra 16.a helduzen (2:21:05) eta Jose Antonio Salgado altsasuarra 159.a (3:26:39).

Atletismoa

Ergoienako Bira korrikan

Bihar, 17:00etatik aurrera, Dorraon

Ikasturtearen hasiera eta gero, Ergoienako Birak irekitzen du Sakanako atletismo proben egutegia. Aurten 9. edizioa du Ergoienako Birak eta bihar, larunbatean, hilak 21, jokatu da Dorraonetik hasita, 17:00etatik aurrera.

Helduak eta kategoriatxikiak

Ergoienako Udalak, Euskadiko Kutxaren eta Unanumo Pentsuen laguntzarekin antolatutako probak bailarako hiru herriak batzen ditu, 8,5 kilometroko ibilbide gorabeheratsuan. Aurten Dorraon hasi eta bukatuko da, Unanutik eta Lizarragatik pasa eta gero. Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako puntuagarria da.

Adin txikiok ere lehiatzeko aukera daukate, benjaminen,

Izen-ematea

Lasterketa egunean bertan, proba baina ordu bat lehenago. Informazio gehiagorako: www.ergoiena.com edo www.dantzalekusakana.com web guneak.

kimuen, haurren eta kadeteen eta jubentzen proba antolatu baita. Kategoriatxikiokendako dominak eta nagusiendako trofeoak daude jokoan. Horretaz gain, Ergoienan erroldatutako lehengo korrikalariak sari bikaina jasoko du: bi pertsonendako afaria Zugain jatetxean. Eta ibarreko produktuen loteak zozketatuko dira parte hartzaileen artean. Aurreko urtean Javi Moreno altsasuarra izan zen garailea.



Giro polita izaten da Ergoienako Biran. Aurten Dorraon izango da topaleku.

Mendi lasterketak

Beriain, inoiz baino bertikalago

158 KORRIKALARI ARIKO DIRA, IGANDEAN, UHARTE ARAKIL-BERIAIN IV. KM BERTIKALEAN

Aralar Mendi elkarteko mendi klubak hainbat babeslerekin batera antolatuta, igandean, irailaren 22an, Uharte Arakil-Beriain IV. Km Bertikala jokatu da. Goizeko 10:00etan abiatuko da proba Uharte Arakilgo frontoetik. Dortsalen banaketa eta helmugara igotzeko arroparen bilketa, berriz, herriko plazan egingo da, goizeko 8:00etatik 9:30era.

Uharte Arakilgo proba aldi berean Nafarroako Kluben Arteko Txapelketa izango da. Horretaz gain, Euskal Herriko Lasterketa Bertikaleko Zirkuitua-Open Lafuma txapelketarako baliagarria den proba da, martxoaren 3an Azpeitian jokatu du Zuzenien probarekin eta urriaren 12an jokatu den Anboto Km Bertikalearekin batera.

Ibilbidean aldaketak: pistako eremu bat kendu

Uharte-Arakil-Beriain Km Bertikalean 158 korrikalari daude izena emanda. Proba hauetan egin ohi denez, parte hartzaileak banakabanaka aterako dira, proba kronometratua izango baita. Uharte Arakildik aterata Beriaingo San Donato ermita izango dute helburu parte hartzaileek (1.494 m). Proba motza da, baina intentsitate handikoa: 5 km-ko lasterketa, baina 1.023 metroko desnibelarekin eta sekulako etapa eta maldekin. Aurten ibilbidean aldaketa egin dute: menditik barrena zati handiagoa sartu dute, pistako eremu bat kenduz.



Malda izugarrietan gora ibiliko dira korrikalariak. ANTOLAKUNTZA

Gainontzeko korrikalarien denboraren erreferentziarik ez dutenez, lasterkariek erlojuaren kontra eta euren buruaren kontra egin behar izaten dute lan. Joan den urtean, 171 korrikalari aritu ziren eta 162k lortu zuten bukatzea. Azkarrenak Ionut Zinca (42:06) eta Vanesa Ortega (51:25) izan ziren. Aurten ere puntako espezialistak espero dira.

Zuzenean

Ikusleek korrikalarien lana gertutik ikusteko aukera izango dute

igande honetan. Edozein toki da aproposa proba jarraitzeko, baina azken zatia da gogorrena eta ikusgarriena.

Sarietan aldaketak

Ibilbidean aldaketak egin dituzenez, orain arte probako errekorra apurtzen zuenari ematen zitzaion diru saria irabazlearen artean banatzea erabaki du antolakuntzak. Neska eta mutilendako sariak izango dira: txapeldunek garaikurrak, txapela eta dirua (300+150 euro) jasoko dituzte, biga-

www.uhartearakil-beriaian.com

Probako informazio guztia, ibilbideen track-a eta beste.

renek garaikurra eta dirua (150+75 euro) eta hirugarrenek garaikurra eta dirua (100+50 euro). Hurrengo urtetik aurrera errekorra apurtzen duenak jasoko du diru sari hori. Beteranoendako garaikurra izanen da.

Nutrizionistaren laguntza

Aurtengoan ere Nerea Cenoz nutrizionistaren laguntza izango dute antolatzaileek. Berarekin parte hartzaileendako hornidura espezifikoa egin da, modu honetan ahalik eta azkar eta hobekien indarberritu daitezten mendiko lasterketa gogor honetan.

Olatzagutia-Urba mendi lasterketan izena ematea zabalik

Irailaren 28an jokatu da VII. Olatzagutia-Urba mendi lasterketa, Urbasa-Andiako paraje zoragarrietan barna (23,2 km, 1.367 m desnibel positiboa). Proba Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako baliagarria da. Izena ematea zabalik dago irailaren 24ra arte. Horretarako www.sakanerria.com/olatzagutia-urbasa/ web gunea edo www.herrikrossa.com web gunea jo behar da.

Txirrindularitza

Egoi Mundialetara



Etxarriarra bikain aritu da Vueltan.

Asteburuan Txirrindularitza Mundiala jokatu da Florentzian. Espainiako selekzioko selekzionatzaile Javier Minguezek 11 txirrindulari taldea osatu du, eta tartean dago Euskaltel-Euskadiko Egoi Martinez. Txirrindulari etxarriarra zenbaitetan Mundialetarako aurreselekzioko taldean egon izan da, lesioren bat egonez gero erreterba moduan, baina orain arte ez da Mundialerako taldean sartu.

Euskaltel Vueltako talde onena



Espainiako Vueltan emozioa pil-pilean zen azken unera arte. Azkenean Chris Horner nagusitu zitzaion Vincenzo Nibali, 37 segundo aterata, Narancon eta L' Anglirun egindako lanagatik. Alejandro Valverdek osatu zuen podiuma, 1:36ra. Euskaltel-Euskadi taldeak ere sari bikaina ekarri du: talde onenaren saria. Samuel Sanchez 8.a sailkatu da, 9:51ra, eta bera buru zela, txirrindulari guztiak igo ziren Castellano podiumera, emozioz beteta. Izan ere bajaran gabe bukatu duen talde bakarra izan da talde euskalduna, lehiakorrena. Han zeuden talde larantziak: Egoi Martinez (30.a, 1:12:18ra), Gorka Verdugo (63.a, 2:20:01era), Jorge Azanza (90.a, 3:03:39ra) eta Pablo Urtasun (122.a, 4:08:50era). Itzuli bikaina egin dute guztiak baina Egoi Martinezek bereziki, ihesaldietan egoteaz gain postu onak lortu baititu, tartean Peña Cabargan 5.a izan baitzen. Marka da Vueltako talde onenak babeslerik ez eta 20 urteren ondoren Euskadi izenearekin desagertu behar izatea. Jakinaenez, 1 formulako pilotu Fernando Alonso erosi du Euskaltelen lizentzia, eta oraindik ez da zehaztu talde berriak zein izango duen eta nola aldatuko den bere jarduna. Bestalde, Movistarreko Hriberriko Imanol Erbiti 102.a sailkatu da, 3:27:15era, Valderendako lan itzela eginda.

Mundialetan arituko den bigarren sakandarra izango da, 2010ean eta 2011n Hiriberriko Imanol Erbiti aritu baitzen Mundialetan.

Debuta

35 urterekin debutatu du Mundialetan. Igandeko proban arikoda da, 272,3 km dituen lasterketan, Alejandro Valverde, Jose Herrada, Jonathan Castroviejo, Samuel San-

chez, Purito Rodriguez, Dani Moreno, Alberto Contador eta Luis Leon Sanchezekin batera. Larunbateko erlojupekoan Jonathan Castroviejo eta Luis Leon Sanchezek ordezkatu dute Espainia Mundialetan.

Pozik

Sekulako Espainiako Vueltan egin du Martinezek eta Mundialetara joatea egindako lanaren sari bikai-

na da. Berria oso pozik hartu du etxarriarrak. "Oso kontentu nago. Betidanik gustatu izan zait Mundialean parte hartzea, eta aukerarik ez nuela uste nuenean, 35 urterekin iritsi zait proposamena. Ilusioz gainezka noa, hau sari bat dela uste dudalako, liderren alde taldekideek egiten dugun lanaren errekonozimendua. Selektionatzaileak hori ikustea eskertzekoa da" adierazi du etxarriarrak komunikabide batean.

Egoik argi du gainontzekoei laguntzera doala Florentzian. Igandekoa lasterketa oso luzea da eta "gogoekin eta sasoiaren egotea" ezinbestekoa da Egoirendako. Vueltan egindako iraupen lana ongi etorriko zaio.

Lizarteko Marquez eta Fernandez garaile 84. Altsasu proban

Altsasuk 84. Altsasuko Txirrindularitza Proba hartu zuen igandean, Euskaldun Torneorako baliagarria zen azken proba. 120 txirrindulari hartu zuten irteera eta 89 iritsi ziren helmugara, Altamira hirutan eta Lizarraga bitan gauditu ondoren. Lizarte taldeko Rafael Marquezek eraso jo eta proba irabazi zuen, Jon Pardori segundo bat aterata. Rural Kutxa talde sakandarreko Migel Angel Benito 5.a izan zen, 11 segundora. Lizarte izan zen probako talde onena, eta Lizarte taldeko Higinio Fernandezek lortu zuen Euskaldun Torneo irabaztea.

Pala



Neskak... hartu pala!

Sakanako VIII. Nesken Pala Txapelketa antolatu du Mank-ek

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Etxarri Aranazko Gure Pilota Elkartearen eta Etxarri Aranazko Udalaren laguntzarekin Sakanako VIII. Nesken Pala Txapelketa antolatu du. 4 mailatan jokatu da: gaztetxoak, gazteak, helduen 1. maila eta helduen elite maila.

Txapelketa urrian hasiko da. Partidak ostiral eta larunbat arratsaldetan eta igandegozetan jokatu dira, Etxarri Aranazko pilotalekuan. Sari politak izango direla adierazi dute antolakuntzatik. Sakanan, Etxarri Aranazaldean bereziki eta Gure Pilota Elkarteak emakumeen pala sustatzeko egiten duen ahaleginaren fruituaren ondorioz, makina bat emakume aritzen dira palan eta guztiak aipatu txapelketan aritzera animatu dituzte.

IZENA EMATEA ZABALIK

Izena ematea zabalik dago urriaren 3ra arte, kirol zerbitzura hots eginenez (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.com). Elite eta lehen mailakoek 20 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek doan dute izena ematea.

Futbola



Lagun Arteak irabazi eta Etxarrik berdindu

Igandean garaipen garrantzitsua lortu zuen 3. mailako Lakuntzako Lagun Arteak Murtxanteri 0-2 irabazita. Goikoetxeak eta Unai Bakaiakoak sartu zituzten golak. Izarra da liderra (12 puntu) eta Lagun Artea 8.a da (6 puntu). Erregional mailan Errotxapearen kontra bana berdindu zuen Etxarrik, Pablok penaltiz sartutako golari esker.

Asteburuko jardunaldia

3. maila: Lagun Artea - Corellano (igandean, 17:30ean Lakuntzan)
Erregional maila:
 Etxarri - Berriozar (igandean, 17:00etan, Etxarri)
 Altsasu - Beti Onak (larunbatean, 17:30ean, Altsasu)
 Ardoi - Lagun Artea B (larunbatean, 16:30ean, Zizurren)

Sakanako 20. Txirrindula Egunerako gonbita

HURRENGO ASTEBURUAN, IRAILAREN 29AN IZANEN DA, IRURTZUNEN HASI ETA ALTSASUN BUKATZEKO. IZENA EMATEA ZABALIK DAGO

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Burunda eta Aralar Txirrindularitza Kluben laguntzarekin, eta hainbat babeslerekin -Irurtzun eta Altsasuko Udala, Nafarroako Gobernua eta Nestlé- Sakanako Txirrindula Eguna antolatu dute hurrengo astebururako, irailaren 29rako. 20. edizioa beteko du proba ez lehiakorren denak, eta "Sakana bizikletaz ezagutzen" leloa izango du.

Astehenean egin zuten probaren aurkezpena Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak eta Burunda Txirrindularitza Klubeko ordezkari Alberto Ocañak. "Helburua, beti bezala, eskualdean txirrindularitza bulkatzea da, goiz polita pasatzea lehiaketa asmorik gabeko ibilaldian" adierazi zuen Gerrikagoitiak. Teknikariak gehitu zuenez "gure herriak, kaleak, zubiak, ermitak, landaretza, basoak... ezagutu nahi ditugu bizikletaz. Eta bide batez, Sakanako herri ezberdinetako eta adinezberdinetako jendearen arteko harremanak bulkatu". Orain arte urrian egiten zen aipatu eki-

taldia baina irailera aurreratu dute "eguraldia gehiago ziurtatzeko eta urriaren 26an jokatu den Sakanako herri lasterketarekin ez bat egiteko".

Iaz 250 pertsona aritu ziren eta eguraldiak laguntzen badu, 400 txirrindulari biltzea gustatuko litzaieke. Irurtzundik 9:00etan aterako dira, 11:00ak aldera geldialdia egingen da Lakuntzan eta gero Altsasura helduko dira, 2. mailako errepideak, xendak eta bideak erabiliz eta herrietara sartuz.

Irailak 23, izena emateko azken eguna

Parte hartzea libre da eta doan, baina antolakuntzak autobus zerbitzua jartzen du txirrindulariak euren herrietan jaso eta Irurtzenera eramateko -goizeko 7:45ean aterako da Ziorditik-, eta proba bukatuta, atzera ere txirrindulariak etxera eramateko. Bizikletak emateko kamioia egoten da ere. "Zerbitzu hauek erabiltzeko aurretik izena eman behar da. Irailaren 23a da azken eguna. Herri guztietan izena emateko tokiak jarri



Txirrindularia puntuan jarri eta Txirrindula Egunean aritzera animatu dute.

ditugu, baina, bestela, Mank-eko kirol zerbitzura hots egin daiteke (948 464 866).

Bizikleta puntuan jartzeko deia

Txirrindula Egunean parte hartu baino lehen txirrindula puntuan jartzea aholkatu dute Gerrikagoitiak eta Ocañak. "Egunean meka-

nikaria egoten da baina egunean bertan gertatutako zulaketa edo matxurak konpontzeko, ez bizikletak puntuan jartzeko" nabarmendu dute. Halaber, parte hartzaile guztiak kaskoa eta ogitartekoa eraman beharko dute. Antolakuntzak zehaztutako ibilbidea jarraitzeko deia egiten zaie txirrindulari guztiei, "segurtasuna bermatzeko".

Harri jasotzea



Harri jasotzaile izan nahi duzu?

Sakanako Harri Jasotze Eskolan izena ematea zabalik, irailaren 30era arte

Sakanako Mankomunitateak, Irurtzungo Udalararen eta Nafarroako Herri Kirol Federazioaren laguntzarekin, Sakanako Harri Jasotze Eskola eta zentro teknikoa zabalduko du berriz ikasturte berrirako. Atzera ere Mikel Lasarte harri jasotzailea izango da eskolako begiralea, eta berarekin harri jasotzearen inguruko teoria eta praktika ikasteko aukera izango da. Klaseak euskaraz izanen dira, eta bateonbategi ez badaki gaztelaniaz zuzenduko zaio. Sakanako Harri Jasotze eskolak hainbat urte daromatza lanean eta bertan trebatzen dira, esaterako, Aitor Oiarbide etxarriarra eta Xabier Igoa aldaztarra. Harri Jasotze eskola urriaren 1ean hasiko da martxan, ekainaren 17ra arte. Eskolak asteartetan emango dira, 18:30etik 20:00etara, Irurtzungo kiroldegian.

IZENA EMATEKO

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 telefonoa edo kirolak@sakana-mank.com), irailaren 30era arte.

Aizkora

Nazabalek hirutik hiru

Hiru jardunaldi jokatu ditu Floren Nazabalek Urrezko Aizkorako Txapelduen Ligan eta hirurak irabazi ditu. Azkena Ordizian, Joseba Otaegiren kontra. Nazabalek jokatu saio guztiak irabazi egin zituen, eta lan guztiak kontuan hartuta 19:12 minututan bukatu zuen lana, Otaegiri bi minutu pasa aterata (21:59). Nazabalek 4. jardunaldia Lopez Azpilikuetairen kontra jokatu du, irailaren 28an, 12:30ean, Zorrozan.

Motoziklismoa

Lurrera

IRTEERA ONA EGIN ZUEN MARIÑELARENAN, BAINA ARERIO BATEN MOTORRA UKITU ONDOREN LURRERA JOAN ZEN 2. ITZULIAN

Alex Mariñelarena pilotu irurtzundarra Munduko Abiadura Txapelketarako baliagarria den San Marino Sari Nagusian aritu da, Moto 2 mailan, lesionatuta dagoen Dani Rivasen ordeiz. Blusens Avintia taldearekin aritu da irurtzundarra Misanoko zirkuitu mitikoan. Aukera paregabea zen, baina zortea ez du alde izan irurtzundarrak, bigarren itzulian lurrean bukatu baitzuen.

Entrenamendu ofizialean egin dako lanari esker -lehen entrenamendu librean 27.a izan zen, 2. entrenamendu librean 26.a eta 3. entrenamendu librean 23.a- 16. postua lortu zuen irteerako parrillan. Hori meritu handiko postua da, kontuan hartuta irurtzundarrak Kalex motorra estreinatzen zuela. Entrenamendu libreetatik ofizialetera egin zuen progresioa agerikoa da. Lasterketan irteera



Igandean Los Arcosen arituko da



Igandean Espainiako Abiadura Txapelketako 5. lasterketa hartuko du Los Arcoseko Nafarroako Zirkuituak. Mariñelarena bere ohiko taldearekin (Targobank Motorsport, Suter motorra) ariko da. Saillapen orokorrean Roman Ramos da Moto 2ko liderra (110 puntu), Mariñelarenari 33 puntu atez (77 puntu). Etxean jokatzeko Alexek, zaleen babes guztia izanen du eta ea Ramosekin duen aldea txikitzerik ba ote duen. Ostiralean entrenamendu libreak izanen dira (9:45ean eta 13:50ean), larunbatean ofizialak (9:45ean eta 13:50ean) eta igandean lasterketa (14:00etan). 27 pilotu daude izena emanda Moto 2 mailan eta Los Arcoseko zirkuituari 18 itzuli eman beharko dizkiote.

Pilota

Altsasuk baditu txapeldunak

44. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketa. Finalak

Gazteak, buruz buru:
Bakaikoa 13 - Errandonea 18
22 urtez azpikoak, lau t'erdian:
Olano 18 - Agirre 9
Nagusiak, binaka:
Artola-Tolosa 19 / Urbieta II-Peñas 22

Sociedad Deportiva Alsasuk (SDA) antolatutako 44. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketa finalak jokatu ziren igandean Altsasuko Burunda pilotalekuan. 500 pilotazale baino gehiago bildu ziren, primerako giroan. Guztiek final ikusgarri eta lehiatuez gozatzeko aukera izan zuten, gazteen mailan eta nagusien mailan bereziki. Sari emate ekitaldian SDAko Pablo Lopez Colina eta Florencio Aiestaranek, Altsasuko alkate Garazi Urrestarazu eta kirol



Finalistak, Federazioa, SDA eta Altsasuko Udaleko ordezkariak. UTZITAKOIA

zinegotzi Ruben Imaz eta Nafarroako Pilota Federazioko Pablo Lopez de Goikoetxea aritu ziren.

Gazteen lehia ikusgarria izan zen. Bakaikoa etxarriarra aurreratu zen hasieran, 6-1, baina Erran-

donaerantz zuten hasien, 9-7ra gerturatu, eta partidari buelta eman zion, 13-18 gailenduz. 22 urtez azpikoetan, aldiz, Olano izan zen jaun eta jabe hasieratik. 18-9 gailenduz Agirreren aurrean. Bukatzeko,

Berrito Mundialera

Mariñelarenak atzera ere Dani Rivas ordezkatu du irailaren 29an, Mundialerako baliagarria den Aragoiko Sari Nagusian.

ona egin zuen Alexek baina bigarren itzulian Corsiren motorra ukitu zuen, lurrera erori zeneta hor bukatu zen San Marinoko proba despeditzearen ametsa. Zorionez, erorketak ez dio aparteko minik sortu.

Burua Espainiakoan

"Irteera ona egin dut eta gustura nabilen tokatu zaidan taldetxoan errodatzen. Larunbatean entrenamendu ona egin nuen eta uste dut lasterketa ona egiteko kapaza nintzela, baina ezin izanda izan. Tamalez Corsiren motorraren atzealdea ukitu dut eta lurrean bukatu dut. Pena handia da, baina orain burua Los Arcosen daukat, igandean Espainiako Abiadura Txapelketako proba jokatu delako" adierazi du irurtzundarrak. Moto 2 mailan Pol Espargaró nagusitu zen, Nakagami eta Rabaten aurretik.

Derby sakandarra Zabaletarendako

Altsasuko festek pilota profesionalen puntako jaialdia hartu zuen. Hasierakoan, Retegi BI eta Rezustari 21-22 gailendu zitzairen Jaka eta Pascual. Partida nagusian, lehia oso borrokatuan eta abiadura handian jokatu zuten, Binakako txapeldun Irujok eta Zabaletak 22-19 irabazi zieten Ezkurdiari eta Zubietari.

nagusiek sekulako partida eskaini zuten, eta laurak aritu ziren ongi. Hasieran Artola eta Tolosa gipuzkoarrak aurreratu ziren, baina Urbieta II.ak eta Peñasek 12-19 aurreratzea lortu zuten. Partida irabazita zutela zirudienean, 19ra berdintzea lortu zuten Artolak eta Tolosak, sekulako emozioa jarritz, baina, azkenean, 19-22 irabazi zuten Urbieta II.ak eta Peñasek.

Urriak 5
Urbasako igoera

Sarrerak saltzen egoteko **boluntarioak** behar ditugu 948 562 107 telefonora edo idatzi bierrik@guaixe.net helbidera

kultura >>

di-da >>

ANTZERKIA

KOMEDIA USAITSUA

Larunbatean, 20:00etan Irurtzango kultur etxean.

La Perfumeria antzelean komikoarekin gozatzeko aukera eskaintzen du Irurtzango Kultura Kontseiluak. Guztia Esmeraldak izeba Gertrudisen lurrin-denda herentzian hartzen duenean hasten da. Berak ez daki lurrinen mundu miragarriaz ezer, eta arazoa bihurtuko da. Ize-barenazken nahi betetzeko Esmeraldak une komikoa eta zentzuga-beak biziko ditu. Esmeralda moduko pertsona kandidoa hainbat egoerei, ahal bezala, aurre egin beharko die iraganeko esentziak eta etorkizuneko usain gozoa mantentzeko. Mariaje Producciones-en ekoizpen publiko guztiendakoda.



ESKULTURA

ANDA ETA SALAZARREN OBRA BANA NAFARROAKO MUSEOAN

XXI.a 3D izeneko erakusketa mustu zuen aurreko ostegunean Nafarroako Museoak. Erakusketaren ardatza artelanaren eta dagoen espazioaren arteko erlazioa da. Bolumenak eta espazio-akikuslearen sortzen duen elkarrekin-tza. Erakusketan dozena bat artistaren 15 lan daude ikusgai. Guztiak ere museoaren berarenak dira. 2000. urtetik aurrera egingandako lanak dira guztiak. Horien artean daude Jose Ramon Andaren **Zeharki II** (brontzea, 2.000) eta Dora Salazarren **Artilugio II (el hábito no hace al monje)** eta **Artilugio III (tener alas no implica necesariamente poder volar)** (sare metalikoa, alabrea, eskaioia eta larrua, 2002) eskulturak.

Frantsesa
Maila guztiak
Trinkoak
HEO
prestaketa
Taldea
edo banaka

AHALEGIN

Arkangoa 3-1 · ALTSASU
672 162 036 · 944 167 012
ahalegin@yahoo.es

Umirezko kontzertuarekin hasiko da Olatzagutiko kultur astea

San Migel festen aurreko astea ekitaldiz beteta heldu da Olatzagutira. Musika, antzerkia, argazkilaritza, ilustrazioa, bidaia kronikak eta mendi dokumental baten proiektzioa da Olatzagutiko Udaleko Kultura Saitetik prestatu den eskain-

tza. Egitarau guztia kultur etxe-ko areto nagusian izanen da. Ikus-kizunetarako sarrerak, aldeztu aurretik, udaletxean eskuratu daitezke (10:00etatik 14:00etara) eta emanaldiaren egunean bertan, hura hasi baino ordu erdi lehenago.



Egitaraua

El cadaver inocente

Pepin Tre

Ostiralean, 22:30ean. Umirezko kontzertua.

Musikari eta umorista ezagunak pertsonaia aparteko eta suntsitzailearen papera jokatu du taula gainean. Gitarra lagun, kantuak eta bakarrizketak tartekatuko ditu. Trek ikuskizunean. Absurdo arrazionala erabiliz eta metafisika, etika, zientzia, kultura eta arteari buruzko egia gezurti miragarriak kontatuko ditu, "erudikiozko surrealismo" ikuskizuna osatuz.



Cotillas

Gorka Aginagalde eta Iñigo Salinero

Larunbatean, 20:00etan. Antzerkia.

Aktore bikote gasteiztarra denbora pasatzeko besteez trufatzea gustuko duten bi ganberroren, bi gizon lizun eta baldarren

papera jokatu dute, eta "egoerarik tragikoenak barre-argara geldiezin bihurtzea" lortzen dute. Txutxu-mutxuak izanen dira antzeleanaren ardatza. "Gizarte matxista honetan, badirudi emakumeak direla txutxumutxu-zaleenak, bainagizonezko askoz ere gehiago gustatzen zaizkigu. Oso gogoko dugu besteen gaitzez hitz egitea, futbola baino gehiago, baina zuek duzue ospe txarra".



Jon Beldurgabea

Domekan, 17:00etan. Antzerkia

Jon gazteak ez daki beldurra zer den, beraz, haren aitak aholku zentzuduna eman dio, behin eta berriro zer ote den azaltzen saiatu ondoren: goxo-goxo bizi den etxea utzita, beldurraren bila abiatzea. 5 urtetik aurrerako haurrendako gomen-datua.

Sergio Barrenetxea

Astelehenean, 20:00etan. Argazki ema-

naldia

Argazkilari olaztiarrak bere argazki sorta bat proiektatu du kultur etxean.

Al Himalaya en bicicleta

Asteartean, 20:00etan. Aurora Segurola eta Ruben Segura

2007ko udaberrian Aurorak eta Rubenek lanetik, familiarengandik eta lagunengandik urrutiratzea erabaki zuten. Gasteiztik abiatu eta, hainbat herri eta kultura ezagutu ondoren, Himalaiako mendietara iritsi ziren. Milaka kilometrori aurre egin behar izan zieten, baina baita ehunka esperientziari ere. Horien berri emanen dute proiektio baten bidez.



Myriam Cameros

Asteazkena, 20:00etan. Hitzaldia

Ilustratzaile eta marrazkigile entzutetsua, Myriam Cameros Iruñean ospatzen ari den Nafarroako Komikiaren IV. Azokan parte hartuko du eta bisita hori Olatzagutiraino etor-

tzeko baliatuko du. Ezagun askoak dira bere marra irregular, zikin eta arimahauskorreko irudiak. Hainbat hizkuntzara itzulita dagoen **Mari zipritzinek ez du zori onerik galepe-rririk nahi** (Txalaparta, 2009) albumaren 30.000 ale saldu ziren. Hainbat enpresa eta erakunderen eskaerak ere erantzunditu bere marrazki eta ilustrazioekin.



Pura vida

Osteguna, 20:00etan. Dokumentala

Pablo Iraburuk eta Migueltxo Molinak zuzendutako dokumentalakiñaki Otxoa de Olza mendigoizale nafarra salbatzeko 2008an martxan jarri zen erreskate-operazio garrantzitsua kontatzen du. Zuzendarietako bat, Migueltxo Molina Olatzagutian izanen da sortzen diren galderak erantzun eta beharrezko azalpenak emateko.



bazterretik

Andoni Igoa

Elkarrekiko egiturak

Egitura arkitektonikoaren munduan niretako berria den kontzeptu bat azaltzen saiatuko naiz. Nahiz eta niretako berria izan, sistema zaharra da, gehien bat gizarte japoniarren erabilitakoa. Kontzeptu honi "estructura reciproca" edo elkarrekiko egitura deritzen. Izenez ezezaguna iruditu arren, ziur nago bertako gehienok esperimendu izan dugula, pertsonen arteko jokoetan edo eskulanetan. Egitura sistema hau oso sinplea da, soilik egitura elementuak bata besteari gainean ezartzen datza, dominoko piezak erortzen direnean bezala baina beti azkeneko pieza lehenengoan bermatuz. Modu horretan elementu guztiak taldean lan egiten dute eta gainean jartzen zaion pisua uniformeki banatzen dute.

Txotxekin egindako maketak ikusiz gain, eraikuntza mailan egin daitekeen zerbait dela probatu dugu. Izan ere, azken uda honetan Arbizuko eko-kanpinean altxatu dute elkarrekiko egitura duen eraikin bat. Eraikin hau berezia izateaz gain ikusgarria dela iruditzen zait, tamaina horretako egitura batek zeinen ongi lan egin dezakeen ikusteak merezi baitu. Eraikina 14 m diametroko zirkulu bat da goitik ikusita, eta teilatua eusteko oinarria, perimetroa jarraitzen duen agotzezko horma bat da. Hemen ikus daiteke agotz prentsatuak ikaragarriko indarra eutsi dezakeela eta, aldi berean, inolako sendotasun itxura ematen duela. Teilatuaren egitura nagusia, lehen aipatu dudan sistemarekin egin zuten, eta hau, 9 metroko luzera duten egurrezko 12 enborrez osatuta dago. Beraz elkarrekiko egi-



tura erabiliz, 14 m-ko distantzia gairatzen dute 9 m-ko trunkuak elkarrekiko moduan bermatuz eta beharrezkoak liratekeen erdiko

zutabeak sahiestuz. Bukatzeko, yoga egiteko laster erabiliko den nabe bitxi hau ezagutzera joatea gomendatuko nuke.

Bertso-eskolan izena emateko epea zabalik

Bertsolaritzaren ezagutza zabaltzeko asmoz sortu ziren bertso-eskolak eta haiek sustatzen ditu Nafarroako Bertsozale Elkarateak. Bertso-eskoletan bertsoaren oinarriko ezaugarriak lantzen dira: hitza eta kantua, errima eta neurria. Baina hori baino askoz gehiago da bertsoa: alaitasuna da; morea; ziria; bertso-eskola taldean ongi pasatzeko tokia da. Gainera, bertso-eskolak euskara maite du. Lagun taldea handitu eta lagunartea bizitzeko modua ere bada bertso-eskola.

Sakanan aurreneko bertso-eskola sortu zenetik 22 urte pasa dira eta, ordutik, bertsoari zaren presentzia nabarmen handitu da gure herrietan. Bertako bertsoariak ere bidea egiten segitzen dute.



Izen ematea

Nahikoa izango da herri bakoitzean edo ikastetxe bakoitzean lau laguneko taldea sortzea. Izen emateko bi bide daude. E-postaz: nafarroa.transmisioa@bertsozale.com edo j.leitza@gmail.com. Eta telefonoz: 948 143 747 edo 652 155 601. Hilaren 27ra arte.

Altsasuk Bertsolari Txapelketa Nagusiko kanporaketa hartuko du

Lastailaren 13an, igandean, 17:30ean izanen da, Burunda pilotalekuan

Lau urtetik behingo hitzorduari hutsik egin gabe, bertan da XVI. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Hilaren 29an hasiko da eta abenduaren 15ean despedituko da, atzera ere, Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre-n. Tarte horretan 14 saio jokatu dira. Haietan 43 bertsolari neurtuko dira. Eta haiei lana jartzen 14 gai-jartzaileko talde bat ariko da. Epaileak, berriz, 16 izanen dira.

Txapelketak hiru sailkapen fasetan banatuta dago: kanporaketak, finalurrekoak eta finala. Aurreneko fasean sei kanporaketa jokatu dira eta horietako bakoitzean dozena erdi bertsolari ariko dira. Talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatu da hurrengo fasera; eta puntu gehien batzen dituzten hamabiek osatu da finalurrekoetara pasatu den taldea. Aurrera 18 bertsolari egiten dute eta haiei azken

txapelketako sei finalistak batuko zaizkie. Finalean, azkenik, zortzi izanen dira neurtuko diren bertsolariak.

Altsasuko kanporaketako bertsolariak

Beñat Gaztelumendi, Erika Lagoma, Oihane Perea, Unai Agirre eta Xabier Silveira ariko dira bertsoan.

Txapelketa interneten

www.bertsozale.com Bertsozale Elkaratearen webgunea eta bertan Txapelketa Nagusiak azpiatal berezia du. www.bertsoa.com Bertsoariaren interneteko telebista da. **Sarrerak** aurreneko web orriaren bidez edo Etxarriko Xapatero tabernan eskuratu daitezke.

Hiruak bat: kantua, txistua eta dantza

Bihar, larunbata, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan Etxarriko Abesbatzaren, Etorkizuna Dantza Taldearen eta Sakanako hainbat txistulariren emanaldia

Hiru kultura adierazpide elkartu dira biharko emanaldirako: kantua, musika eta dantza. Txandaka, nor berea emanez, eta elkarrekin ariko dira artistak. Hala, dantzariak dantza egiten eta abesbatza kantuan ikustearekin batera, abesbatzaren doinura dantzatzen edo abesbatzaren eta txistularien melodien uztartzea.

Hori da Etxarriko Abesbatza, Etorkizuna Dantza Eskola eta Sakanako hainbat txistularik sortutako ikuskaria, ehun parte-har-



tzaile baino gehiago bilduko dituenak. Denen artean dantza eta abesti tradizionalak eskainiko dituz-

te, baita euskal doinu berriak eta haierako propio prestatutako koreografiak ere.

Egitaraua

1. zatia

1. *V. Monzonen Minuetoa* (txistulariak).
2. *Agurra* (dantzariak+abesbatza).
3. *Momotxorroend dantza* (dantzariak).
4. *Borobila koreografia* (dantzariak).
5. *Gabiltzan kalez kale* (abesbatza+txistulariak).
6. *Belauntxingo koreografia* (dantzariak).
7. *Axuri beltza* (dantzariak + abesbatza + txistulariak).

2. zatia

1. *Mendirik mendi* (abesbatza).
2. *Jai adivasi koreografia* (dantzariak).
3. *Baserritarra* (abesbatza + txistulariak).
4. *Alpargata koreografia* (dantzariak).
5. *Aunitz urtez* (abesbatza).

3. zatia

1. *Gaztelugatxe koreografia* (dantzariak).
2. *Ashera koreografia* (dantzariak).
3. *Bigarren kalez kale* (abesbatza+txistulariak).
4. *Kaxarranka* (dantzariak).
5. *Fandango* (dantzariak).
6. *Inurriak* (abesbatza+dantzariak).

Ariko direnak

Etorkizuna Dantza Eskola

5 urtetatik hasi eta 18 urte bitarteko neska-mutikoez dago osatuta Etorkizuna Dantza Eskola. Egun batez ere, Altsasu, Ziordia eta Etxarriko 65 bat haur biltzen ditu. Taldeak euskal dantza egiten du. Iñaki Agirre Larraza altsasuarra da irakaslea. Altsasuko Aitzindari dantza taldeko dantzaria izan zen eta egun, Altsasuko Udaleko Musika eta Dantza Eskolako irakaslea da.

Etxarriko Abesbatza

Etxarriko Abesbatzak ibilbide luzea du. XIX. mende hasieran elizkizunetan bakarrik abesten zuen, baina 1972an beste eremu batzuetara zabaldu zen. Kontzertu ugari egiten ditu, eta emaitza bikainak izan ditu sona handiko txapelketetan, itzal handiko taldea izatera iritsiz. Alicia Armendarizenzuzendaritzapean ariko dira.

Txistulariak

Sakanan txistulari tradizio handia egon izan da beti eta ekitaldirako hainbat elkartuko dira.

Ondarrria industrialdea
ALTSASU



Unamuno

Tel. 948 562 829 Faxe 948 563 002

SASI-GARBITZEKO
MAKINA



**BEHAR DITUZUN
HERRAMINTA
GUZTIAK!**

BEHIAK ETA ARDIAK
JEZTEKO TRESNERIA



CASCOGNE MELOTTE

ABERE INSTALAZIOAK



L'engagement qualité

CARNICERIA I. ARREGUI

HARATEGI ETA URDAITEGIA



**Sakanako hiltegian
hildako haragia**

Etxeko obradorea:
tripota
tripotxa
mihia
kalluak
saltxitxak
frituak

tel. 948 576 067

Herriko plaza z/g LAKUNTZA

G asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 15%	euria: 13%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 8%	euria: 5%	euria: 10%
Min: 11 Max: 19	Min: 13 Max: 20	Min: 11 Max: 24	Min: 12 Max: 26	Min: 11 Max: 26	Min: 13 Max: 27	Min: 14 Max: 26

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	24.4	4.9	8.6
Altsasu	24	6	10.7
Aralar	18.4	5.7	18.3
Urbasa	23	2	10

: ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
27	5	11	18

Acrycolor SISTEMA BERRIA **KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE** **KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253
Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI
Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

2014ko egutegiaren eskaintza mundiala irailean

mahai egutegiak

100	200 €
200	250 €
500	390 €

kolorez, 300 g papera, A4, piramide forman tolestua (210x100 mm)

boltsiko egutegiak

100	57 €
200	63 €
500	97 €

kolorez, 300 g papera, 84 x 55 mm plastifikatzea: +30 €

bi orrikoak

100	70 €
200	85 €
500	130 €

kolorez, 300 g papera, 84 x 110 mm, erdina tolestua plastifikatzea: +30 €

horma egutegiak

100	156 €
300	328 €
600	586 €

Postera personalizatua, kolorez, 330 x 370 mm, faldoiak elebiduna, bi kolorez.

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
948 564 275
argi@guaixe.net

>> 11 galdera

Anabel Arraiza Artieda

Irrien Lagunak Klubeko kidea

Testua: Eneida Carreño eta Mainer Betelu



Elkarrizketa osorik www.guaixe.net-en.

1. Goenkalen aktore, musikari...

Orain Irrien Lagunak Klubeko antzezte zaitugu.

Mari Kalanbre eta Ane Pirata antzezten ditut eta Irrien Lagunak Klubeko bulego lanetan nabil.

2. Nola sartu zinen proiektuan?

Mari Kalanbreren papera egiteko kontratatu ninduten. Hurrek pila bat maite dute Mari Kalanbre eta nik ere bai. Gero ikuskizun berriak sortu ziren, eta guztiaren koordinazioa egingo zuen pertsona behar zuten. Lanpostu hori ere eskaini zidaten eta oso gustura nabil. 5 pertsona gaude, lana handia da baina proiektu honetan sinisten dugu.

3. Pirritx eta Porrotxen inguruan sortutako edozerk, beti arrakasta!

Bai, hala da. Katxiporreta (Pirritx, Porrotx eta Marimotots), Elkar eta Berria taldea elkartu ziren eta Irrien Lagunen Kluba sortu zuten, haurrak ardatz hartuta. Irria aldizkariarekin hasi ziren, hile-ateratzen dena, 2-8 urteko haurrei zuzendua. Eta web gunea sortu zuten, www.irrienlagunak.com, eguneroko kontaktu hori izateko.

4. Gero ikuskizunak etorri ziren.

Clan, Disney eta beste ikusten dituzte gure txikiak. Kanpoko baloreak sartzen zaizkigu, baina gure baloreak ere hedatu behar ditugu. Zeintzuk dira gure baloreak? Lehenik eta behin proiektua euskaraz egitea. Bestetik, Euskal Herrian mila eratako pertsona bizi gara, baina denok daukagu kabida. Sustatzen duguna da partaidetza bat haurren eta gurasoen artekoa, guztien elkarbizitza, guztien berdintasuna, elkarren arteko errespetua eta eko-

logiarekiko errespetu bat. Hori transmititzeko aldizkaria eta weba ez ziren nahikoak eta Irrien Lagunen Klubeko ikuskizunak sortu ziren. Ikuskizun bakoitzak bere mezua du, ez da hurrendako entretenimendu bat soilik, baloreak sustatzeko ikuskizuna baizik.

5. Irrien Lagunak Gizartegintza elkarteak sortu duzue berriki.

Euskal Herriko 22 elkarte bildu ditugu, izaera bereziko haurren eta familien inguruan lan egiten dutenak: harrera familiak, minbizia dutenekoak, esklerosia dutenekoak, ijitoenak, Saharako haurren aldekoak, behar bereziak dituzten haurrekin animalien bidez terapiak egiten dituztenak (Bocalan Biak Bat, Altsasu)...

Asmoa da elkarte horien baloreak jaso eta gu euren bozgorailu izatea. Irria aldizkarian tokia egin ez, jaialdiak egin ez... mila gauza egin daitezke eurei laguntzeko.

6. Horrek betetzen zaitu gehien?

Bai. Badago neskato bat, Nahia, gaixotasun arraro bat duena. Ez du irtenbiderik baina beti saiakerak daude. Iaz bere aldeko jaialdi bat egin genuen, eta berriki jakin dut behar zutena bildu dutela eta Txinara doazela. Horrek balio dit niri azkenean; pena merezi du.

7. Egoera oso gogorak daude.

Bai, eta lagundu behar zaie. Ekonomikoki ez bada, beste modu batean. Hori da gure asmoa, elkarte hauen lana eta beharrak gizarteratzea.

8. Helburu horrekin igandean Bizipozaren jai antolatuko duzue, Lazkaon.

Irrien Lagunak gizartegintza elkar-teraren aldeko jaiak izanen da. Bertan egonen gara Irrien Lagunen Klubekoak, Txatxilipurdiko tailerrak, Faktoria enpresako puzgarriak, Urtxintxakoak, Hodei mago altsasuarra, Pirritx, Porrotx eta Marimotots... denak joango gara boluntario gure ikuskizunak eskaintzera. Lazkaoko herria izugarri inplikatu da: ikastolak bazkaria prestatuko du, udala antolakuntzan murgilduta dago, musika eskola eta dantza taldea ariko dira, Altsasuko dantzariak baita ere...

9. Elkarten lana ezagutzeko aukera egongo da?

Elkarte bakoitzak bere standak izanen du. Gipuzkoako Kirol Egokitukoek gupilgainean saskibaloia egingen dute, ijitoek kajoi tailerra, Bocalanekoek txakurren erakustaldia, Euskal Gorrekoek zeinu hizkuntzakotailerrak... Denetatik.

10. Elkarteendako diru laguntza jasoko duzue?

Ateratzen den erdia gure gizartegintza proiekturako izango da, eta beste erdia Lazkaoko herriak erabaki du aipatu elkartekoei emango diela. Irrien Lagunak Klubeko harpidedunek sarrerara doan dute. Sarrerak piraten zapi batzuk dira (5 euro, famili osoa 10 euro). Etxarriko Kaxetan eros daitezke.

11. Igandeko zer eskatzen duzue?

Eguzkia! Eta jende asko hurbildu dadila Lazkaora, elkarteei elkartasun hori adieraztera eta egiten duten lana ezagutzera. Egitaraua web orrian dago. Denak han espero zaituztegu. Izan ere, Lazkaoko bertan dago!

Guaixe Komunikazioa Xtrem!

Uhartea Arakil-Berriain 2013

5. km berrikala

Irailak 22 septiembre 10:00

GUAIXE KOMUNIKAZIOA diseinua & inprimatzea